

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

5. GUTUNA

Ni, **KRISTO**, **5. GUTUN** hau idazten ari naiz argi eta garbi adierazteko **ezkutuko ERREALITEA**, zeinari **UNIBERTSAL** eta **ZERUKO** ere deituko diodan, zuri gogamena irekitzen laguntzeko eta ulertarazteko -zu gizabanako bat zaren arren- **IZATEA eta BANAKOTASUNA EMAN ZIZUNA BERE BAITAN dela Unibertsala - Betierekoa - Mugagabea - toki guztietan hasierarik eta amaierarik gabea**.

Lurrean izan nintzeneko ene bizitza eta benetako irakaspenak deskribatzen dituzten aurreneko **GUTUNAK** irakurri baino lehenago, **5. Gutuna** aukeratu dutenen onerako esango dut nire benetako izatea, **‘Jesus’ KRISTO** izenekoa, ez dela inola ere nahastu behar Testamendu Berrian deskribatzen den ‘Jesusekin’.

Nire jatorrizko irakaspenak, lau Ebanjelioetako eran, mundu osoan zehar zabalduak eta oso gaizki interpretatuak izan direnez gero, asmoa dut orain **EXISTENTZIAREN EGIA** irakasteari ekitea, ebanjelioetan aipaturiko ene jatorrizko terminologiak duen benetako esanahia azalduz. Hori beharrezkoa da, lurrean bizi izan nintzenetik iraun duten eta bilatzaile espiritualen belaunaldiei oker informatu dieten gaizki-ulertzeak uxatzeko eta pittinka-pittinka jendearen kontzientzietatik erauzteko.

Lurrean izan nintzenean, existentziaren atzean eta barnean den **Errealitatea** deskribatzeko **‘Aita’** terminoa nahita erabili nuen ‘JAINKOA’ aipatzean. Horrela egiteko bi arrazoi neuzkan. Lehendabizi, **1. GUTUNEAN** azaldu nuenez, basamortuan iluminazioa jaso nuenean, ikusi ahal izan nuen Unibertsoaren Sortzailea deskribatzen zuten kontzeptuak -Judutar profetek ‘jakinarazi’ bezala- erabat okerrak zirela.

Bigarrenik, Sortzailearen benetako izaera garbi hautematen -eta guztiz ulertzen- utzi zitzaidan, eta konturatu nintzen aitatasun/amatasun izaera zela, eta izaera hori zen kreazioaren beharrak modu berezian eta ongi zehaztuan asetzea, zeina den aita/amaren sinonimoa. Ikusi nuen izaki bizidun orotan diren aitatasun/amatasun bulkadak zuzenean Sortzailearengandik ateratzen zirela; eta maitasun guztiaren eta aitatasun/amatasun bulkaden sorburua, biziaren eta existentziaren beraren sorburua ere bazela.

‘Ikusi’ ere ikusi nuen kreazioa, **Izatearen Bulkada Sortzaile Unibertsalen manifestazio ikusgaia** zela; eta beraz, gizateriari deitu ahal zitzaiola: sortzailearen ondorengoa (progeniea).

Horrexegatik, sortzailea aipatzean zeharo naturala zen nik **‘Aitaz’** hitz egitea, zeren eta -niretzat- horixe da benetan Sortzailea aspektu guztietan, -bereziki **‘Aita-Ama’**-, baina kontuan harturik juduen arabera emakumeak bizitzan menpeko maila betetzen zuela, **‘Aita’** baino ez nuen aipatu judu-erresistentzia ekiditeko eta termino berriaren onarpena izabazteko.

Halaber, nik **‘Aita’** terminoa sortu nuen juduei laguntzearren Jehovaharen kontzeptua eta judutar-legeen

zurruntasuna erabat okerrak zirela kontura zitezen. **-‘Aita’-** termino berria erabiltzean **-Bulkada Sortzailea-** existentziaren atzean eta barnean den Sortzailea deskribatzeko argi eta garbi laga nuen oso irakaspen berria ekarri nuela, zeina inola ere ez zetorren bat pertsona batzuk arbuiatzen zituen eta zigorgisa ‘merezitako’ hondamenak bidaltzen zizkien ‘Jainkoa’ onartzen zuen sinestearekin.

Zuk erabat uler dezazun nahi dut Testamendu Berrian inon ez dela argitu Testamendu Zaharreko irakaspenen guztiz aurkako irakaspenei ekarri nuela; eta beraz, ez dagoela horretan fidatzerik, ez onartzerik, ezta sinisterik ere, nire bizitzaren eta irakaspenen benetako narrazioa balitz bezala.

Nire nortasunari, izaera iluminatuari, jokaera emozionalei eta irakaspenei buruzko benetako kontakizun zehatzak, berez argi eta garbi utziko zuen -alde guztietatik begiratuta ere- erabat ezberdinak zirela judu-erlijioaren aintzinako formak eta nire irakaspen iluminatuak.

Judu-erlijioa muturreko kontzeptu materialistez jositakoa zen. Egia da badirela idazkiak, zeinetatik espirituali goi-argitutako juduek gure **IZATEAREN ITURRIAREN** hautemate mistikoa ateratzen zuten eta ateratzen jarraitzen duten.

Gurtuak eta errespetatuak izatea merezi dute beren gogamen-egoera transzendentea izateagatik.

Baina, profetak euren idazkien bidez gizon-emakumeengana heldu ahala, gizakiei helarazi eta heldu zitzaion mezua ezberdina eta kontrolatzailea izan zen, zeina zeharo gizatiarra eta faltsua baitzen. ‘Goian den Jainko’ batek ez dihardu ‘onaren’ edo ‘gaitzaren’ inongo kontrolean. Halako kontrolik balitz mundua ez legoke izugarrizko nahaste eta miseriazko egoeran.

Irakaspen berri bat ekarri nuen zuzendua soilik jendea ohar zedin **unibertsalitateaz eta maitasunaz; hau da, KREAZIO OSOA AGERIKO MANIFESTAZIORA EKARRI** zuen **‘HAREN’** barne izaeraz eta izaera haraindikoaz.

Nire asmoa, hori oso argi uztea da. Zertarako? Egiaren bilatzaileei laguntza emateko; hots, ni judutar profeten lerro luze bateko profeta bat baino ez nintzelako sineskera-hondarrak desagiten laguntzeko; eta ni, kreazioari buruzko sentimendu baliobidunak zeuzkan Jehova guzti ahaldunaren inguruko gaiak predikatzen zituztenetako bat nintzelako sineskerari ere uko egiten laguntzeko.

Judu-Ortodoxoei zieten beldurrak, herriari nitaz kontatzea erabakita zutenarekin elkarturik eduki zituen ene dizipuluak. Gogoratu behar duzu judu-jarraitzaile berriak kristautasunera erakarzeko, dizipuluak ez zirela Testamendu Zaharraz libratu, honek mendeetan zehar juduak elkarturik eduki zituelako; beraz, nire irakaspenei kendu eta erantsi zieten sineskera zaharrekin bat zetorren guztia. Eta genealogia-lerro bat diseinatu zen juduei bermatzeko, ni Daviden jatorri berekoa nintzela. Zertarako hartuko zuten lan hori, ez bazen argi eta garbi utzi nahi izateko ni aintzinako enda bateko judua nintzela; eta beraz, Mesiasgai izan nintzekeela?

Lurrera zertarako etorri nintzen benetan ulertu izan balute -iraganarekin apurtzeko, eta guztiz berriak ziren ulerkuntzako eta jarduerako etorkizunaren oinarriak ezartzeko-, ahalegin ausartak egingo zituzketen, ni ene heriotza-egunera arte bultzatu ninduten benetako helburuak herriak uler zitzan ziurtatzearen.

Baina ez zituzten egin. Irakasten saiatu nintzenetako asko ilundu egin zuten.

Bihotz handiko ene dizipulu batek, Esteban-ek, ez zeukan hainbeste beldur egiazko irakaspenen gainean hitz egiteko, nahiz eta horiek ere aldaraziak izan, baina hala ere, hil arte harrikatua izan zen.

Ulertu behar duzu dizipuluen bizitza urria zela, eta ez dela batere harritzekoa haiek irakaspenak pentsamendu tradizionalekin mozorrotu izana herriarentzat onargarriagoak egiteko.

Hala eta guztiz ere, eztabaida gogorrak egongo dira nik diodanean 'Kristautasuna' nire baieztapen eta sendaketa batzuen kontaketa baino ez dela, zeina ez den gatazkatsuegia Juduen irakaspenarekin. Lehen dizipuluek eta Pablok -Antioquian izan zuten inimiztaren ondoren- sortutako erlijioa da, juduak ahalik eta elkartuen edukitzeko eta jentil-kristautuak artaldera ekartzeko. Orduan komenientzia, kristau-pentsamenduaren fazeta izatera heldu zen. Hauxe da lurreko nire bizitzari eta heriotzari buruzko egia. Eztabaidak sortuko dira, zeren jendeak bere sineskera estimatuei gogor eusten baitie, eta soil-soilik abandonatzen baititu jabegorik maitatuenak galtzen dituztenek esperimentatutako oinazeaz. Hala ere, beren sineskerak hain kutunak izan arren, **sineskerak** baino ez dira. Ez dira oinarri sendoak, gainean bizitza berriak eraikitzeke modukoak.

Orain, **GUTUN** hauen bitartekariaren bidez zeuri natorkizularik, -zure **giza-hautematearen parametroen barruan**- ahalegintzen ari naiz **Errealitatea, zure Izatearen Iturria**, zeuretzat deskribatzen **-zeinak unibertsoari eta existentziari berari hasiera eman zien-**.

Zehazki, duela 2000 urte bezalaxe, **orain etorri naiz GUTUN hauen bitartekariaren bidez hurrengo milurtean zehar etorkizuneko bilakaera espiritualaren oinarriak jartzeko. Zure garapen espirituala soilik atera daiteke existentziaren eta IZATEA EMAN ZIZUN...'HAREN'... izaeraren ulerkuntzatik eta dituzun hautemate sakonenetatik.**

Zeren, argiki **hautematen** duzunak sortzen baititu zure kondizioak, zeinen arabera bizi zaren.

Gizateria, bere benetako sorburu espiritualak ulertu ez dituelako etengabeko gerretan dabil nahaspilatuta; eta sortu ditu lur kondizioak, zeinak baitira bai giza kontzientziarentzat lotsagarria, bai izaera guztietako giza oinazearen iturria.

Horregatik, **NIRE KONTZIENTZIA KRISTIKOAREN AHALMEN OSOA - BIDALTZEN - IRRADIATZEN** ari naiz, zuri **EXISTENTZIAREN EGIA** ekartzeko halako terminologia moderno eta ulergarria; zeinak eraikitzen utziko baitizu kontzientzia berri bat eta **'benetan den Egiaren'** ulerkuntza; aurrera jarraitzen utzi beharrean tradizioz jaso dituzun edo irakatsi dizkizuten sasi-sineskeria horiei atxikitzen.

Terminologiak -erabiliz eta ulertuz- zugar iratzarriko du begirune, maitasun eta ikuspegi espiritual bera -**edo handiagoa**-, lehen 'Jainkoa' hitza erabiltzean sentitzen zenuena baino. Terminologiarik egokienak, esanahi unibertsalez zaturik, ahalmen espiritualek beteko zaitu azkenik, hitzen esanahia erabiltzen eta bistaritzen duzunean.

Ni hemen nago zuri zera kontatzeko: garbitua duzunean 'niaren' bulkadaren giza pentsamendu eta sentimendu larrien kontzientzia, eta meditazioan eta kontzientziaren goratzean irauten duzunean **Unibertsal aldera**, sentitzen hasiko zarela ahalmen espiritualak nola hartuko duen indarrez zure gogamena eta azkenean zure gorputz osoa.

Beraz, nire irakaspenak **soilik** daude zuzenduak, zure kontzientzia sartzen ari den bizi berrira,

bizitasunera eta ahalmen espiritualera irekitzen zeuri laguntzeko; asegabea eta mugatua den bizimodu zaharra utzi ahal dezazun, eta aurki dezazun barne pozaren eta zure behar guztien asetasunaren iturri berria.

Pentsa ezazu honako adierazpen honetan: Ez dizut ekarri 'egin behar da' edo 'ez da egin behar' bezalako agindurik, edo zeure buruari ezarri nahi ez diozun murrizte zapuzgarririk. Egiazki, kontatzera etorri natzaizu nola zure 'kontzientzia-formek' beren baitan bizia duten eta azkenean nola manifestatzen diren zure munduan. Baina, zure zentzu komunari uzten diot pentsamendu osasuntsuak, egintza amultsuak, eta alaitasunera eta gauzatzera doan bide zuzena aukeratzen kreaioaren egiazko izaera ulertzen duzunerako.

Etorri ere etorri naiz nire **Ahalmen Kristikoaren** indar guztiarekin, zure eta ... **IZATEA EMAN ZIZUN ... 'HAREN'** artean hesirik ez dagoela ohar zaitezen; soilik zeuk sortutakoak, **Existentziaren Legeak** ez ezagutzeagatik.

Hesiak kentzen eta zure gaurko ezjakintasuna argitzen laguntzera etorri naiz; eta irakastera zure kontzientzia -zure izate osoa- nola zabaldu behar duzun **IZATEA EMAN ZIZUN HAREN** eraginpera.

Beraz, berriro DIOT: azken analisisian nire irakaspenak zuzenduak daude, **soilik**, zure kontzientzia irekitzen laguntzera biziaren, bizitasunaren, eta ahalmen espiritualaren berritasunera; asegabea eta mugatua den bizimodu zaharra utzi ahal dezazun eta aurki dezazun barne pozaren eta zure behar bakoitzaren asetasunaren iturri berria. **Irrikatzen dut Zeruko Maitasunarekin izatearen goreneko maila hori lor dezazun hurrengo dimentsiora igaro baino lehen. Zure igarobidea oinazerik gabea izan bedi, eta igarotzea goreneko itxarotea izan bedi.**

Helburu bakar horrengatik egin dira **Gutun** hauek.

Goian aipatu baieztapena modu indartsuagoa eta ahaltsuagoa duzu lurrean nengoenean esan nuena beste hitzez esateko: 'Bilatu, aurrena, Zeruetako Erresuma, eta horrez gain gauza on guztiak emango zaizkizu'. Ez nuen baieztapen hori egin jendea 'ona' izan zedin konbentzitzeko. Existentziaren 'egitate' bat adierazi nuen.

Argi eta garbi jakin behar duzu zuk 'Jainko' deitzen diozun eta nik **'UNIBERTSAL'** deitzen diodan **'HARK'** ez daukala erlijioek egozten dizkieten giza ezaugarrietarik bat bera ere. Haserrea, mehatxuak eta zigorrak bezalako giza ezaugarriak soilik giza izaerari dagozkio.

Berriro diot: Ni, KRISTO, Gutun hauek diktatzera jaitsi naiz, hain zuzen ere, zure gogamenetik kentzeko profetek sortu zituzten 'giza hitzez osaturiko irudiak'. Nire asmo sendoa da, irudiok - **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA- den AHALMENAREN** azalpenez ordezkatzeko; **ZEINAK** benetan sortu egiten baitu, barnetik mugitzen baita, eta bermatzen baititu ageriko unibertsoa eta zure oraingo hautemaketik eta ulerkuntzatik haratago diren dimentsioak.

Ari ere ari naiz hemen kontatzeko, beste unibertso edo dimentsio batzuk irekiko zaizkizula eta zure kontzientziara iritsi-errazak izango direla, **Gutun** hauetan diseinatutako ezagutza onartua **denean**, eta ezagutza hori zure kontzientzia indibidualizatuaren egitura bera bihurtzen **denean**.

Azkenean heriotza, existentzia mugatuko dimentsio batetik biziagoa eta ahaltsuagoa den baterainoko igarotze zoriotsua izanen da. Espiritualki egoki arazturik zaudenean eta gorputz-kapsulatik irtetzeko une

egokia denean, jakingo duzu arinduta alde egingo duzula muga fisikoetatik aske egongo zarelako maitasunaren eta izatearen dimentsio eder eta liluragarrian sartzeko.

Heriotza, izan behar duen bezala hautemango duzu, arima argituentzat benetan dena: -igarotze aintzagarri bat– bizi eta sormen handiagoko opari bat, eta zuk inoiz amestu gabeko 'izate extatikoaren' esperientzia.

Honako hau ere argi eta garbi utzi nahi dizut: Pertsona askok uste dute bizimodu emankorra eta gauzatua izan dezaketela 'pentsamendu positiboaz' hitz egiten duten ehunka maisu-maistra anitzei jarraitzeagatik. 'Aldatu zeure kontzientzia' diote 'eta zeure bizitza aldatuko duzu'. Hori neurri bateraino egia da, baina eboluzio espiritualetan ari diren bilatzaileentzat, halako kontzientzia aldaketak espirituko idortasuna eta zeozer gehiagorako irrika uzten du oraindik ere.

Arimak irrikatzen duen 'gehiago' hori, bere **IZATEAREN ITURRIAREKIN** benetako kontaktua izatea eta biltzea da. Baliteke zuk hazkunde espiritual pixka bat lortu izana ona, benetakoa eta amultsua soilik hautemateko bidetik jarraitzeagatik; hala ere, bere txokoan bakarrik dabilen entitatea izaten jarraitzen duzu, **betiko Unibertsal mugagabeak** lagundu gabe. **Unibertsalaren izaera** ulertuz gero eta **Berarekin** benetan kontaktatzeko pentsamenduak zuzenduz gero, bakarrik ez zaudela ohartuko zara unibertsoa sostengatzen duen **Errealitateak** sostengatzen zaituelako.

Eta diodanean: 'Berarekin egiazko kontaktua eginez', esan nahi dut zu ez zarela egiazko kontaktua egiten ari zeure IZATEAREN ITURRIAREKIN onura hau edo hori jasotzeko otoitz arrenkariaren bidez.

Egia esan, **Izatearen Iturriak** otoitza jasotzen du, eta maiz lortu egiten da beharra asetzen duen erantzun azkarra, eta gainera eskatu bezala. Baina **zure Izatearen Iturriarekiko** benetako kontaktua soilik esperimentatuko duzu zure kontzientzia giza 'egoaren' bulkada truskiletik nahikoa araztua daukazunean, eta meditazioan aldi bat emana duzunean etengabeko ahalegin emozional indartsu batez kontzientzian iritsi nahian zure **Iturri aldera**, konexioa eta espirituz berritzea bilatuz.

Horixe da existentziaren atzean den benetako helburua. **Izatearen Iturriaren** eta kreazioaren **arteko elkarrekikotasun konstantea**.

Hemen gogoraziko dizut lurrean bizi nintzenean egunero esaten niela juduei argi eta garbi: 'nik neuk ezin dut ezer egin'. Etengabe adierazten nien: "Aita" da lana egiten duena, ez ni'.

Garai honetan gaitasuna ematera etorri natzaizu, zuk lurrari atxikitako kontzientziazatik iluminaziorako bidea egin dezazun; iluminazio hori baita, pertsona batek dakienean azkenean **Izatearen Egia ezagutzen duela**.

Zalantzarik gabe, oso erlijiozalea den jendeari, erlijio dogmarekin eta -judutar, kristau, musulman edo hinduista teologiarekin ezin ezabatuzko eran doktrinatuari edo beste edozein erlijio-sineskerari atxikitakoari- hasieran zail egingo zaio -baita mingarri ere- **GUTUN** hauek onartzea eta egoki erabiltzea; zeren programatutako eta baldintzatutako gogamena zementoa bezalakoa baita. Talismantzat erabilitako gogoko sineskerak, sostengu emozionalak eta krisialdietan indarra emateko baieztapenak grabaturik

daude subkontzientean emozionaliki; eta eskuarki 'Jainkoa iraintzeko' ikara bat eramaten dute erantsita goragoko Egia baterantz nola aurreratzen den so egotean. Baldin eta sineskera tradizionalak baino gehiago **IZATEAREN EGIA** jakiteko benetako irrikarik ez bada, patroï edo eredu mental horiek gogamenetik eta emozioetatik ezabatzea ia ezinezkoa izaten da, eta oztopatu egiten dute egiazko aurrerapen espirituala.

Ni jin naiz oztopo horietatik haratago benetako iluminazio aldera mugitzeko borondatea duten guztiei laguntzera. Beraz, orrialde hauetan dauden hitzak senez **EGIA** direla sentitzen baldin baduzu eta hitzok erakarrita sentitzen bazara, izan konfidantza **GUTUN** hauetan zirriborratzen den bide espirituala hasteko prest zaudela. Eta ni prest nago zuri aurrera jarraitzeko adorea emateko, harik eta zuk zeure helmuga lortu arte; hots, benetako iluminazio espirituala, bizi berri bat, nahiaren indarra, eta nik deitzen nuen 'Zeruetako Erresumarekin' bat egitea.

Egunero, benetako meditazioak eta otoitzak arazte mentala ekarriko dizute, eta pixkanaka pixkanaka **EGIAK eta ULERKUNTZAK**, noizbait zuretzat hain garrantzitsuak izan ziren mito zaharrak ordeztuko dituzte.

Hurrengo irakaspenen hasieran, **Nik, KRISTOK**, gogora ekarri behar dizut zure unibertsoa ez dela solidoa. Ziur asko jakingo duzunez -zientzialariek bat etorritz-, materia solidoa -munduaren ageriko sustantzia- zinez energia-partikulez dago osaturik.

Zure lur-dimentsioaren **IZATEAREN EGIA** kreazioaren oinarritzko errealitate horretan oinarritzen da. Izatearen Egiari dagozkion nire irakaspenak ulertzeko behar beharrezkoa da sortutako mundu guztiaren azpian den 'oinarritzko huts' itxurazkoa atzematea.

Zuetako gehienok, existentziaren egitate hori era intelektualez ezagutzen duzue; hala ere oraindik ez da irazi zuen kontzientziara, munduaren eta existentziaren beraren ikuspegi berri bat emateko. Milurtez milurte egin duzuen bezala pentsatzen jarraitzen duzue; hau da, zuen mundua solidoa dela eta gorputzaren kondizioak eta kanpoko fenomeno ororen kondizioak zuen kontroletik kanpo daudela. Existentziaren biktimak zaretela uste duzue. Hala ere, egia aurkakoa da. Eta zuen bizitzek sineskera horiek islatzen dituzte. Beraz, ezinbestekoa da ni itzultzea, zuei Egiaren goragoko hautemate baterantz aurreratzen laguntzeko.

1. GUTUNEAN esan nuen bezala, basamortuko argialdiaren ondoren, ene mundura –Palestinako hiri eta herrietara- itzuli nintzen; eta berehala, beharrean edo sufritzen ari zirenei laguntzeko beharra ikusi nuen tokian 'materiaren elementuak' kontrolatzen hasi nintzen.

Etorri natzaizu zehatz-mehatz zergatik egin ahal izan nuen irakastera.

1. GUTUNEAN adierazi nizun bezala, basamortuan iluminazio osoa izan nuenean ulertu nuen 'materia' ez zela benetan solidoa. Ez zidaten ulertarazi partikula elektrikoek -nik deitutako 'tantoen titileoak'- nola lortzen zuten zehazki ageriko 'materiaren' itxura hartzea. Soilik jakin nuen 'tanto' horiek frekuentzia biziko abiaduran mugitzen zirela 'JAINKO-GOGAMENAREN' baitan, eta ondorioz 'JAINKO-GOGAMENA' unibertsala dela.

'JAINKO-GOGAMENA' gauza guztien bai sortzailea bai sustantzia zela somatu nuen kreazioaren

beraren baitan. Horretaz erabat ziur nengoen.

Ikusi ere argi eta garbi ikusi nuen giza pentsamenduak, uste sendoz edo emozioz zamaturik egotean, errotik eragiten ziola 'ageriko formen' materializazioaren prozesu horri.

Beraz, giza gogamenak, 'JAINKO-GOGAMENAREN' benetako asmoan eragin zezakeen -eta izatez hala egiten zuen-.

Ulerkuntza unkigarria eta pozez beterikoa izan zen, zeren Judutar Rabinoek irakatsitako mitoak guztiz faltsuak baitziren, eta berehala baztertuak izan ziren nire gogamenetik. Egia gogo beroz besarkatu nuen, jendeak miseria eta sufrimendua zergatik esperimentatzen zituen ulertu nuelako. Horiek, jendearen pentsamendu-prozesuetatik jariatzen ziren.

'Ikusten' ere utzi zidaten **'partikula bizidunen komunitateak'** -zientziak 'zelulak' deitzen dituenak- izaki bizidun ororen baitan lanean. Zelulen funtzionamendua gobernatzen zuen **Zeruko Harmoniaz** jabetua nengoen; zelula horiek, gogotsu eraikitzen eta sostengatzen zituzten izaki bizidun guztien -handien nahiz txikien- gorputz fisikoen eta landare-bizitzaren atalak. Horregatik erabili nuen paisaia hainbeste, **'Aitaren'** immanentzia eta jardueraren adibideak emateko basabizitza xehean, landareetan eta txorietan esaterako.

1.-3. Gutunetan argi eta garbi azaldu nuenez, 'JAINKO GOGAMENARI' **'Aita'** deitu nion, 'JAINKO GOGAMENAREN' benetako izaera 'ikusi' – hauteman ahal izan nuelako; eta erabaki nuen nik jasotako jakinarazte edo agerpenak deskribatzera Palestinako jendearengana itzultzen nintzenean ulertuko zutela rabinoek jendearen kontzientzian sartutako sineskerak, erabat faltsuak zirela.

Ikusi nuen **'JAINKO GOGAMENAREN' benetako izaera Zeruko Maitasunaren** erarik gorena zela, eta hori izaki bizidun bakoitzean ikus zitekeen jardun bizian.

Lehenago aipatu bezala, ezagutza honen bidez 'mirariak' egin eta elementuak goberna nitzakeen beharrezkoa eta komeni zen tokietan.

Palestinako Juduen gogamenak hartuta zeuzkaten mitoak lehertarazi nahi nituen bezala; orain erakutsi nahi dizuet zuen zientzialariak proposaturiko teorietako asko sortu direla iragan urtetako elizaren dogma eta doktrinen aurkako erreakzio gogor gisa.

Baieztapen hori ulertzeko, kontuan hartu behar duzu Darwinen garaia izan aurretik Eliza Kristau batzuek herriaren gogamena beren menpe zeukaten bitartean, oro har onartzen zela unibertsoa -zehatz mehatz- Bibliaren Testamentu Zaharreko Genesian idatzita zegoen bezala sortua zela. Zientzialariak aurkikuntza eta teorien berri ematen saiatu zirenean, sineskera berriak deskribatzera behartuak izan ziren, sekulako erlijio-aurkakotasun baten aurrean. Beraz, energia mental zati handi bat erabili behar izan zuten Profeten baieztapenak okerrak zirela egiaztatzen. Hori egitean, zeregin horrek argitasun galera handia ekarri zien, eta 'egoak' arrastaka eramanak ere izan ziren. Ordutik aurrera, senidetasun zientifikoak proposaturiko edozein **intuizio-hautemate** -besterik gabe- irrigarri utzia eta arbuaiatua izan zen beste zientifiko batzuen aldetik. Giro mental hura zela eta, 'Egiaren' bilaketaren penduloak soilik kulunkatu zuen arrazoiaren eta logikaren etengabeko sineskera aldera; horrela giza adimendua materialismoan espetxeratuz, biziaren eta existentziaren iturburuari buruzko erantzunak bilatzean.

Beraz, behar beharrezkoa da nik 'teoria zientifikoetako' batzuk gezurtatzea, eta erakustea Kristau Doktrinaren 'egiak' direlakoak bezain okerrak direla. 'Teoria' horietako batzuetara heltzean, bai zientzialariak bai elizgizonak, frogatu gabeko aieru zentzugabeen erresumetan sartu dira, lurreko gogamenak, berak bakarrik, -aldezturik- erantzuterik ez zuen galderak erantzuteko.

Kontatua dizudanez, zure mundu materialaren substantzia 'espazioan' barrena abiadura handiz astindutako partikula elektriko osaturik dago funtsean; hala ere, zure zientzia ez da gai azaltzeko halako energia-partikulek '**zergatik**' hartzen duten 'materiaren' itxura eta dentsitatea; soilik hitz egiten du fusio-indarrez, zeinek halabeharrez sortzen baitituzte elementuak.

Zientziak ezin dizu azaldu zein den elementuak osatzen dituzten partikulak erakartzen dituen **Indar Eragilea**.

Zientziak, azaldu ere, ezin dizu azaldu nondik datozen aipatutako energia-partikulak, ez bada, Big Bang garaian zehar askatuak izan zirela esatea. Haien ustez, Big Bang horrek eman zion aurreneko bulkada sortzeari. Zergatik bat-bateko Big Bang bat? Zer dela eta? Zein izan zen Faktore Eragilea horren atzean? Zientziak elektromagnetismoaz hitz egiten du, baina ezin dezake esan nondik datozen agertzen eta desagertzen diren energia horiek. Nora doaz? Zergatik itzultzen dira? Giza ikuspegitik ez dirudi inongo jarduera ulergarrikerik dagoenik horien lanaren barruan edo atzean.

Zientziak dio elektromagnetismoa 'soilik dela' -existentziaren egitate soila-; hala ere, oso lan argia nahita sortzen du milioika biloi sustantziaren forman, zeinetatik eginga baitago Unibertsoa. Nola gertatzen da hori?

Ez dago elektromagnetismoak ikusgai bihurtu duen ezer giza gogamenak helburu edo esanahirik gabetzat jo dezakeenik.

Zientziak, ez daki ezer sortze-maila oinarritzaren eta bizien horretaz. Honako galdera honi erantzun gabe zuen iturburuaren bilaketan ez da baliozko ezer aurkituko: elektromagnetismoaren energia bikien jardueraren bidez ageriko manifestaziora ekarritako guztiak **zergatik** dauka beti helburu bat, **zergatik** du arrakasta, eta **zergatik** da zentzuzkoa?

Zientziak, '**espazioaren**' '**Errealitatea**' frogatzea eta jakitea lortu ahal izan arte -**non** 'ageriko izakiaren' partikula elektrikoek oinarria duten-, beti materialismoaren ate itxien ostean geratuko da. Zientzia betiko Egiaren eta jakintza unibertsalaren aurrean blokeatuta egongo da, eta itxita egongo da arrazoiaren korapiloan -arrazoi hori soilik da garuneko zelulen jarduera mugatuaren emaitza.

Orain **ESPAZIOAREN benetako izaera** aurkeztu nahi dizut: baina horri ekin baino lehen, aurrena gaiari buruzko galdera dextente ekarri behar dizut gogora.

Aro askotan zehar, elektromagnetismoak egindako lan ugari, solidoa eta iraunkorra iruditu zaio entitate bizidunen gogamenari, ikusmenari eta ukimenari. Metalak, harkaitzak, entitate bizidun guztiak 'materia' solidoz -bizidun edo bizigabe- osaturik zeudela uste zen. Unibertso solidoan oinarrituriko halako sineskerarekin, naturala da aintzinako profeta mistikoek 'Gizabanako Ahaltzu' bat sortu izana, unibertsoko sustantzia solido guztiak sortzeko itzelezko ahalmena zeukana. 'Gizabanako Ahaltzu' hori

bistaratzean, naturala zen haiek unibertsoa gobernatzeko irudi 'Berebizikoa' somatzea; zeinak sari-izaera bat baitzeukan, gizarte nahasia sortua zuen gizateriaren jokabideari aurre egiteko.

Ez aintzinako profetak, ez gaurko zientziak, ez dira hurbildu 'Existentziaren Egiara'.

Inor ere ez da egiaz jabetu.

Zientziak dio bizitza hasi zela -modu adierazezin batez- erreakzio kimikoen konbinatze egoki batek molekula bat sortu zuenean, zeinak gaitasuna baitzuen bere buruaren kopiak egiteko, erreakzio kimiko berriak abiaraztearen bidez.

BIZIAREN INDARRAK duen gainezkako eta itzelezko konplexutasunari eta ahalmenari buruzko halako deskribapenak, **-‘bere burua errepikatzeko gai’ delako bereiz daitekeen zerbait bezala ikusten duena-** jakinarazten du aipatu teoria piztu zuten pertzepzioek eta pentsamendu zientifikoek duten oinarritzko txirotzea edo pobretzea.

Are gehiago, auto-bikoizketa edo burubikoizketaren hain emaitza harrigarria ekoizteko, elementu kimiko bizigabeen halako konbinatzea -halabeharrez- modu zehaztuan uztar zitezkeelako iradokizunak, zientifikoki kuestionatu gabe dirau oraindik.

Hori horrelaxe da, giza gogamen mugatuak -nahiz eta zientifikoa izan- ezin duelako kudeatu hain arraroa den hasierarik gabeko ‘burubikoizketa’ gertaera bat. Hori, gertaera magiko baten oso iradokitzailea da - irudikatu ezin den iturri baten interbentzioren baten oso iradokitzailea da; eta zientzialari bat ere ez da iturri hori behatzera ausartuko, barregarri jar dezaketelako beldurragatik.

Onartze hori -bildots batena bezalakoa- zientifikoagotzat hartzen da teoria ‘inspiratuak’ sortzea baino, zeinak, zientziak bere buruarentzat ezarritako lege materialistek oztopatuak baitira. Etorkizuneko aurrerabide zientifikoari egiten zaion blokeatze horrek, galaraziko dio zientziari gogamenaren eta espirituaren erresuma behar den moduan ikertzea, harik eta zientzilari iluminaturen batek adostutako konbentzioei aurre egin arte, eta ‘ikusten denaren eta ikusten ez denaren’ arteko muga zeharkatzera ausartu arte.

Aintzinako profetei burubikoizketa molekularren teoria aurkeztu izan balitzaie, ez lukete inolako zailtasunik izango aipatu ‘gertaera magikoarekin’; eta erranen lukete ‘Jainkoak’ konbinaketak egin eta biziz bete zituela. Baina hori ere ez litzateke azalpen zuzena izango.

Ustez ‘urrundik sortzen ari den’ ‘goreneco Jainko’ baten aintzinako erlijio-kontzeptu horrek blokeatzen du zientzia emakumea/gizona aurrera joatea espiritualki kontzienteagoak diren hausnarketetara. Beraz, nahiz eta zientziak doktrina zaharrekiko itxurazko emantzipazioa izan, debeku zaharren beldurrek XIX. mendean bezain lotua -buru aldetik- eta buxatua egoten jarraitzen du. Bere teoria barregarriak onartzen dira, oraindik hauteman ez delako molekula bizidunaren baitan eta atzean den **Izatearen Gure Iturriaren ‘Errealitatea’**.

Zientziak kreazioari buruz duen historiari jarraituz baieztatzen du beren burua bikoizteko gai diren molekula bizidunak auto-fabrikatu ondoren -zelula biziduna (hain txikia ezen ezin baita agerian ikusi) ‘osatuz’-, zelula hori, organismo bizidunetan den anitz-konplexutasun guztiaren oinarritzko bloke bihurtu zela. Organismo horien artean aipa genitzake: landareak, insektuak, narrastiak, hegaztiak, animaliak eta

gizakia bera. Beraz, izaki bizidun guztiek arbaso bera dute - lehendabiziko molekula biziduna. Zientziak ezin du azaldu zergatik konbinatzen diren beren burua bikoizteko gai diren molekulak zelula bizidun bat sortzeko. Horrek misterioa izaten jarraitzen du zientziarentzat gaur egun arte. Zelula biziduna, zientziak dioenaren arabera, biloi biloi bat forma anitzetan errepikatzen da amaigabe. Unibertso ikusgaiaren oinarria da. Nola izan daiteke hori? Zein **bulkadak** eragiten du errepikatze hori? Zientziak ez daki zer esan. Bere itsukeria sustraiturik, zientziak bere buruarekin batera eramane du jendea arrastaka, behe aldera, itsukeria materialistaraino.

Eta orain, lehendabiziko zelula bizidunak, dimentsio espiritualak eta **'Existentziaren Kausa Lehena'** seriooki bilatzen dabiren edonoren arreta osoa merezi du; zeren eta lehenengo molekula biziduna eta lehenengo zelula biziduna baitira unibertsoaren barnean -'materiaren' baitan- dagoen jarduera adimenduren baten aurreneko frogak garbia.

Zentzu ona eta sentiberatasuna erakusten dituen lehenengo ezaugarria da zelula inguratzen duen mintzaren funtzioa, babesa eta banakotasuna emanez. Hausnartu fenomeno 'miragarri' horretan! Zelulak ingurumenetik xurgatzen du soilik mintzaren bidez *aukeratutako* elikagaia.

Zelulak elikagai *zuzena* xurgatu ezezik, -elikatu ondoren- kanporatu ere egiten du hondakina mintz iragazkorren bidez.

Honako hau zeure buruari egin beharreko galdera duzu: begi bistakoa ez den zelularen mintzaren atal fisiko hutsak nola *'nabarmen eta hauta'* dezake elikagai zuzena ongizatea burutzeko, eta gero nola izan dezake bereizteko gaitasun nahikoa, nahi ez duen materia toxikoaz desegiteko?

Ez al dakusazu **helburu**-maila altua jarduera horretan guztian, eta sinets al dezakezu halako helburua ustegabekoa izan daitekeenik?

Eta ez al da **HELBURUA** zinez **Adimenaren** ezaugarria?

Eta ez hori bakarrik; zelularen mintzak elikagai aukeratze-lana eta materia toxiko suntsitze-lana egiten segitzen du biloi bat biloi inguruabar eta egoera ezberdinetan espezie ezberdinen biziraupenarekin erlazionaturik eta giro anitzetan. Ez al da hori espezie bakoitzaren akzio bakoitzean barna ageri den **HELBURU** argia, dela insektua, dela landarea, dela narrastia, dela hegastia, dela bestelako animalia edo gizakia bera?

Ezin al liteke deskribatu unibertsoa, **HELBURUAREN** etengabeko **BULKADA** tinkoa bezala -ikusgai egina-, begi bistako 'materiaren' erresumaren baitan?

HELBURUAREN espiritua, elementu fisikoa ala **'KONTZIENTZIAKOA'** da?

Eta onartu ahal baduzu **HELBURUA**, **EXISTENTZIAREN** atzeko sormen-bulkada ukalezina dela, orduan honako pertzepzio edo hautemate hau ere onar dezakezu: zuen unibertsoa **'Kausa eta Ondorioaren EBALUAZIO ADIMENDUN'** baten ageriko manifestazioa dela, 'materia' bizidunaren baitan argi eta garbi ikusten dena. Zeren, zelula bizidunak elikagai egokia aukeratu eta **hondakin toxikoa suntsitu** ere ahal badu, jarduera soil horrek erakusten du asimilatu beharrenden eza gutza duela, eta hondakin toxikoen ondoriozko pilaketa aurreikustekoa, eta baita aipatu hondakinak suntsitzeko beharra ere, zelularen etengabeko osasuna bermatzeko. Ez al da hori **'Kausa eta Ondorioaren' EBALUAZIO ADIMENDUN**

baten adierazpen garbia?

Are gehiago, - zientziak dioenez, zelulak 'nukleo' bat dauka giza garunarekin aldera litekeena; zeren mezuak igortzen baititu, eta duen funtziorik garrantzitsuena informazioa biltzea baita; hots, 'memoria' da, zeinak barnean baitauzka zelularekin erlazionaturiko zehaztapenak ezezik, gorputz guztiarenak ere -non zelula bizi den-!

Kontua da zientziak zelula ikertzean, jakitea lortu duela zelulak izatez 'mezu' kimikoen sistema bat dirudiela, modu jakinean, adimentsuan eta ulergarrian burutua. Nola gerta liteke hori zelularen molekula-**sorburuak** soil soilik elementu kimiko bizigabeak izango balira? Eztabaidatuko al zenuke 'bidaltzeko mezua duen mezulari' bakoitzaren atzean pentsamendu adimenduna edo kontzientzia dagoela? Eta begira zein zehatzak diren zelularik zelula igortzen diren mezuak zenbait espezieren errepikapen zehatza milioika urtez bermatzeko.

Orduan, zein unetan sartu zen kontzientzia organismo bizidunetan? Eta, zer dela eta sartu zen pentsamendu adimenduna -hausnartzen eta erabakitzen duena- kontzientziarik gabeko materia bizigabearen arloan?

Berezkoa duen kontzientziarik izan gabe, begiarentzat ikustezina den zelula batean nola gerta daiteke hainbeste jarduera, non informazioa jaso eta igortzen den? Ez al da jarduera hori **kontzientzia / ezagutzaren produktua, bizi 'adimenduna' bere mailarik txikienean erakusten duena?**

Gainera, zelula bizidun soil bat, baktería gisan, berez mugi daiteke, eta egin dezake bere bizimodua maiz espezializatua eta ziragarria inguruaren baitan - edo - birusa bezala aurrera eraman dezake bere lan hilgarria eta espezializatua bere helburu espezifikoak erasotzen organismo bizidunen barnean. Bestalde, zelula irmo egon daiteke organismo batean, organismo horren atalen baten eraikitze eta mantentze lan garrantzitsua burutuz. Lan horrek 'materia biziduna' doi doi egokia eta *beharrezkoa* sortzen du lan egiten duen organo bizidunarentzat -bai gizakiaren gorputz atalarentzat, edo animalia edo landareen biziarentzat-; esaterako, gizakiaren oinetako behatzak eta barea, edo animaliaaren larrua eta letaginak, edo arrainen eskatak eta hegaztien lumadia, edo zuhaitzen azala eta beren adarretako hostoak, edo loreen petaloak eta zurtoina, edo tximeleten antenak eta hego gardenak, edo krokodiloen narrasti-larrua eta hortzak, edo txipiroien begiak -kamuflatzeko behararen arabera kolorez aldatzen direnak-. Biloika eta biloika zelula bizidun eta berdinek egiten duten lan berezi eta banakoak sortutakoak dira fenomeno fisiko hauek guztiak, erabat anitzak eta itxuraz zer ikusirik ez dutenak euren artean.

Begi bistan ikusterik ez dagoen zelula soil bizidun batek lortutako lanaren tamainari eta aniztasunari begira egotean, sinets daiteke unibertso mekanizista batean? (Mekanikan oinarriturik Existentziaren Legeak azaldu nahi dituen unibertso batean, alegia).

Hori egin liteke, zelula horiek sortutako materia, ez-logikoa balitz, sinesteko moduko inongo helbururik izango ez balu atzean, ezta existitzeko inongo arrazoirik ere -kontzientzia pertsonalik gabea-.

Baina hori ez da horrela. *Berdin-berdin*ak diren zelula bizidun horiek batera lan egiten dute harmonian gizakiaren edo animaliaaren barnean, gorputzaren baitan zeregin anitz dituen **gibela egiteko, begi korapilatsu bat sortzeko**, zeinak helburu zehatzak dituen entitatea inguruarekin zuzeneko harreman adimendunean jartzeko -burmuinaren laguntza barne-, edo **hezur sendoak** -tendoi eta giharreekin

batera bereziki eta korapilatuki diseinatutakoak- beste hezur batzuekin uztartzeko hain modu komenigarrian, ezen entitateari uzten baitiote mugimendu malgua eta osoa egiten.

Are gehiago, zelulak ez dira inoiz sartzen gainerakoen lanean.

Giltzurruna sortzerakoan, ez dute bat batean belarria egiten.

Ilea sortzerakoan ez dira, bat batean larruazala egiten hasten. Ez; zelulek buruko larruazala sortzen dute, eta zelula berberak sortzen dute ilea. Larruazaleko eta ileko zelulen artean dagoen alde bakarra, egiten duten lan mota da, segundoz segundo bizitza osoan. Zergatik?

Zein da 'Faktore Eragilea eta Inspiragarria'? Istripua al da?

Zein **adimen** antolatzailek ipini zuen abian sortze-prozesu guztia, -'espazio' barneko partikula elektriko askeen bidez- elementu ximpleen osatze-maila oinarritzkoenetik hasita,

sustantzia kimikoak sortzeko elementuak konbinatzea,

molekula biziduna sortzeko sustantzia kimiko espezifikoen konbinatze zuzena,

zelula biziduna egiteko molekula bizidunen konbinatze zuzena, zeinak -aipatu molekulak- zera egin dezakeen: elikagaiak hartu, hondakinak iratzi, espezifikazio argien arabera eraiki, higitu, eta bilioika urtetan zehar sortzearen eraikuntza itzel horri irmoki **eutsi**?

Horrez gain, zein da era guztietako haziak -landareenak, insektuenak, narrastienak, hegaztienak, animalienak, eta gizakienak- emankortzeko biloika modu ezberdin diseinatzea eta gararaztea lortu duen **Indar Eragilea** sistema eta entitate bizidunen baitan; bakoitzarentzat, inguruko egoera klimatikoetara eta landaredi ekoizpena egokitutako ugaltze-sistema adimendun bat gararazi duena, biziraupena bermatu asmoz?

Ez al da **BIZIRAUPENA** helburu adimenduna erakusten duen jarduera nabarmena ere?

Eta sormen egitandi edo balentria hori betetzean, ez al zenuke galdetu beharko espezie bizidun bakoitzak nolako modu indibiduala duen bere prolea hazteko eta ahal den guztietan babesteko, harik eta prolea bera bakarrik **BIZIRIK ATERATZEKO** gai izan arte? Ez al da hori **SORTUTAKOAREKIKO MAITASUN** bizia modurik gorenean?

Giza adimenak biziaren eta sormenaren iturburuez esateko duen analisi honetatik at, ezin dira aipatu gabe utzi '**garrantzi handiko ADN molekulak**', horietaz esaten baita organismo osoaren -dela landarea, dela haurtxoa- proiektua daramatela. ADN molekula horiek ere, instrukzioak ematen dizkiete zelulei, haziak ipinitako kromosomen arabera eraikitze informatuz.

Bai, benetan; **adimenaren** ordeztu zientziak ADN molekulak eman dizkizu, zure existentziaren iturritzat hartuz, zure gorenko nagusitzat, kreazioaren zure zuzendaritzat, zeinaren menpe egon behar baitute materiaren eta kreazio osoaren zelula ahulek, bizirik irauteko. Behatu **zuen kreazioaren ADN Jaun** aintzagarria!

Nondik atera ote zituzten ADN molekulak beren **ahalmen adimendun zuzentzaileak**?

Zientzia guztiz asbeteta dago, atseginez adierazi ahal izan duelako zergatik errepikatzen diren hain zehatz eta etengabeko kalitatez era guztietako espezie anitzak. **Zientziak sinets dezazun nahi du zu unibertso mekanizista huts batean bizi zarela. Eboluzioaren fenomeno, ustekabeko mutazioetatik**

eta 'Indartsuenaren legetik' sortzen dela.

Kreazioaren organismo anitzak, espezie afinen askotariko eta anitz jarduera aztertzen badituzu, zinez sinets al dezakezu hain probabilitate gutxiko kontzeptu materialista batean?

Ez da inongo bat-etortze hutsala izaki basatien eta basa-landareen habitata aztertzeko, zehazteko eta argazki-ateratzeko pertsona sortzaile asko egotea, zeinek bidaia zailak egiten dituzten zure zerbitzura gaur egun, kreazioaren atzean den neurrigabeko **Adimena** aurki dezazun. Zure unibertsoko **mirarien** informazio eta argazkien aniztasunak entretenitu eta irakatsi egiten dizu. Lurreko egonaldian nik ez nituen halako gauza zoragarriak aipatzeko izan, **Existentziaren Egia** Unibertsala Juduei irakasteko. Etxeko animaliak eta hegaztiak baino ez neuzkan izaki bizidun orengan den argitasun harrigarriaren, adimenaren eta kontzientzia garbiaren adibidetzat erabiltzeko. Jehova Gorena eta Ahaltua, nik Sortzailetzat hartu eta aipatuko nuen testurik ez dago inon idatzita ebanjelioetan, Judutar Buruen ohitura zen bezala.

Ez, nik landara, loreetara eta hegaztietara jo nuen; eta, herrikideei irakasten ahalegindu nintzen esanez kreazio miragarri eta zoragarriak inguraturik zeudela. Zuen dimentsioan, orain dela bi mila urte oinarri zientifiko modernoak falta genuen, nik era adimendun batez begiratu eta azaldu ahal izateko **'Aita'** deitzen nuen Haren jarduera zuen inguru guztira.

Zure benetako **IZATEAREN ITURRIA** aurkitzeko, eskatzen dizut pentsaezina eta esanezina diren konplexutasuna eta aniztasuna ebaluatzeko, eta pinguinoetan eta zerrietan argi eta garbi ikusten den lanaren asmoa egiaztatzeko. Giza gogamenak ba al du jarduera oinarrizkoenetakoko bat -edozein-bikoizteko gaitasunik; esaterako, digestio sistemak digestiorako behar diren hormonak eta enzimak berehala biltzeko duen gaitasunik? Nola ausartzen da gogamen mugatua -intuiziozko jakintzak gobernatzen duen benetako prozesu sortzailea argi hautemateko gai ez delarik-, kontraesan oro desafiaturik okertu gabe baieztatzea ulertzen dituela kreazioaren benetako iturburua eta indarrak, zeinetatik kreazioak forma hartu zuen? Hori harropuzkeria galanta! Gizon horiek, begiez dakusatenaren arabera baino ezin dute pentsatu.

Gaur eguneko ezjakintasun zientifikoa dakusat maitasunezko gupida handiz, jolas giro onez eta zientziari bere harrokeria galarazteko irrika biziz. Zeren, norbaitek haren hutsezintasun jarrera eta autoaskitasuna edo buruaskitasuna ezbaian jar ditzakeen arte, inoiz ere ez baita lortuko egiazko uztartzea Betiko Egien eta giza ezagutza zientifikoaren artean. Baina *lortu* egin behar da, bestela giza eboluzio espiritualak -ez aurrera ez atzera- geratuko da.

Onarturiko liburu, formula, eta ekuazioetan utzi diren kontzeptu 'mugatzailuez' beteegi dago gogamen zientifikoa, eta kideek onartua izateko beharra dauka, ez onartzeko Goragoko Adimenen inolako esku sartzerik. **Gutun** hauen irakurleei eskatzen diet nire izenean elkarte bat sor dezaten zientziari erronka jotzeko, eta zera galdetzeko: mundu materialaren eboluzioan zein unetan bereizten da **KONTZIENTZIA** lehendabizikotz?

Berriz diot, eta benetan diot. Galdeiozu zientzialariari: munduaren eboluzioan zein momentutan hautematen da 'kontzientzia' lehenengo aldiz? Zelula bizidunean? Zelula bizidunean izan bazen, galdetu ea 'kontzientzia' hauteman ote zitekeen zelula egiteko konbinatu ziren molekula bizidunetan, eta ea sar

zitekeen hain argi diseinatutako mintzean, zeinak bideratzen baitzuen aukeratutako elikagaia kontsumitzea eta hondakin toxikoak baztertzea. Nola jabetzen da hondakin toxikoaz? Eta onartzerik badago 'kontzientzia' molekula bizidunetan presente egon zitekeela, ez zenuke galdetu behar izango ea propietate kimikoek ere -zeinak molekula bizidun bihurtzen ziren- ez ote zuten izango azkenean konbinaketa bizi batera bultzatuko eta higiaraziko zituen 'kontzientzia' bat, molekula bat egin ahal izateko? Eta existentziaren iturburuetan puntu honetaraino -propietate kimikoetaraino- atzeratu ondoren, oraindik ere zera galdetu beharko zenuke: Kontzientzia zergatik izan beharko litzateke presentzia bideragarria soilik sustantzia kimikoen baitan? Zergatik ez indibidualitateak lehen aldiz forma hartu zuen elementuetan? Eta kontzientzia elementuetan baldin bazen, zergatik ukatu behar da kontzientziak partikula elektrikoak bultzatuko litzakeela elementuak sortzeko? Arrazoizkoa al da horrelako aukerari ezetz esatea?

Eta posibilitate horretara heldu ondoren, ez al zenuke urrutirago joan eta galdetu beharko nondik datorren elektromagnetismoa? **Zein da elektrizitatearen 'errealitatea', zientziak deskribatutako izpi bizi hutsak -fotoiak eta elektroiak- baino?**

Eta zein da magnetismoaren 'errealitatea', atxikidura-arbuio energia bikote soilak baino -kaosari egonkortasuna eta ordena ekarri dizkieten energia bulkadak-?

Galdetu zientziari: Nondik dator elektromagnetismoa, zeina den irudikaezinezko konplexutasuna eta aniztasuna dituen unibertso antolatu eta ordenatu baten kreazioaren oinarritzko urratsen arduraduna?

Orain zure hitzetan azaltzen saiatuko naiz hitzetatik haratago, eta une honetan 'lurreko ulerkuntza indibidualizatu' orotik haratago dagoen **HURA**. Horregatik, nahiz eta adimenak garunari -adierazten ari natzaizun errealitate espiritualak- intelektualki ulertzen laguntzen dion, harresi bat ere sortzen du benetako hautematearen eta esperientzia espiritualaren aurrean.

Horrexegatik, kontuan har itzazu **GORENEKO DIMENTSIO UNIBERTSALAREN** aipamenak soilik orientabide bezala; hots, zure unibertsoaren barneko eta atzeko **ERREALITATEAREN** 'kontzientzia-forma mugagabeen' ideiak, begiztatzeak bezala. (Eraman ideiak -banan banan- meditaziora!).

Orain adieraziko dudana oso-osorik kontzientziaren barruan dago eta KONTZIENTZIARENA da, parametrarik eta mugarik gabe. Espiritualki niri horraino jarraitzeko nahikoa eboluzionaturik baldin bazaude, hitzetatik haratago, 'espiritualki' ulertzen hasiko zara kontatu nahi dizudan guztia. Hitzek 'izatearen muga' berrien aldera gidatuko zaituzte eta gero ezagutarazi egingo dizkizute.

Eutsi! ARGIAK, pixkanaka, agian ez hautemateko eran, zure gogamena barneratuko du, eta barneko ikuspen-ñirñir edo distira txikiak izango dituzu.

Askok esperimendu dute 'barneko argi-pizte' txiki bat, labur labur sentitu dute 'Zeruko Kontzientziaren' ukitu bat. Eta gero, iratzarraldiaren une traszendente horretan sinesten jarraitzera ia ausartu gabe, hasi dira galdetzen, zalantzatan jartzen, eta azkenean 'Zeruko Kontzientziaren' eragin txikia barreiatzen. Kontuz, ez egin hori! Sinesgabekeriak atzeratu egingo zaitu, irudikatu ahal duzuna baino gehiago nahastuko zaitu existentzia-materialaren mailan. Ematen dizutena ematen dizutela eta jaso dezakezuna jaso dezakezula, eutsi irmoki, eta ez izan zalantzarik.

Zalantzak aurrerapen irmoa suntsitzen du bere 'kontzientzia formak' sortzen dituelako; eta horiek

ezabatu eta erauzi ere egingo dizute lehen irabazitako barne-ikuspena.

Beraz, zure pentsamenduen aukeraketak, -sineste sendoak edo sinesgabekeriak, fedeak edo zalantzak- zure aurrerapena eraiki edo suntsitu egiten du zabiltzan EGIAREN bilaketan.

Edozein ezezko lortua duzun aurrerapena ezabatzen du zure kontzientziatik. Areago, egia espiritualetan zenbat eta gorago igo, orduan eta indartsuago bihurtzen dira zure pentsamenduak.

Beraz, sortu zeure indar espiritualak eta eutsiozu gogor; eta ez utzi inori muturra sartzen eta indar hori hondatzen. Eutsiezu gogor aurreko hautemateei. Zalantza garaian ibil zaitez baretasunez pentsamendu positiboekin, argitzen duten baieztapenak erabiliz, eta bat eginez aurreko gida inspiragarriarekin (zure kontzientziaren bibrazio-frekuentzia altuagoa izan zenean). Zure borondate-indarraren bidez, aukera itzazu Egia espiritualak duten 'urre-lingoteak' dauzkaten baieztapenak; eta itzul zaitez behin eta berriro kontzientziaren maila altuago horretara. Alferkeria mentalagatik ez makurtu erabat kontzientziaren energia espiritualen gorabeheren aurrean, eta ez zaitez bihur gorabehera espiritual.

Ezin dut nahikoa nabarmendu auto-butxadura edo buru-butxadura arrisku hori. Egin zaitez horren jakitun bizkor. Palestinako nire bizitzaren narrazioetatik zerbait ezagutzen baduzu, gogoratuko duzu neuk ere kontzientzia espiritualen gorabeheren fenomenoak pairatu nuela, eta muinoetan bakartu beharra izan nuela otoitz egiteko, meditatze eta indar espiritualak berritzeko.

Beraz, uler itzazu zeure aldi lehorrak, baina ez iezaiezu bidea zabal, desiraezinezko aldaketari geldotasunez amore emateagatik zure jokabide eta patroia mental/emozionaletan. Indar berria jasotzeko eta kontzientziaren frekuentziak igoarazteko era kontzientean zure **izatearen iturrira** joaten zaren bitartean, zure aldi negatibo horiek nabarmen murriztuko dira indarrez eta iraupenez.

Berriro diot, une oro kontuz nola erabiltzen duzun zeure gogamena! Utziozu zure jardueraren mentalari beti eraikitzailea izaten, zure hazkunde espiritualetan lagundu ahal dezan eta izan ez dadin etengabeko oztopoa horretan.

Aurreko guztia esan ondoren eta, **GUTUN** honi geratzen zaiona diktatzeari ekitean, **Bitartekaria GUTUNA** publikoki onartzeko aukera kuestionatzen hasi zen **nire hitzengatik**, hitzok pragmatikoegiak iruditzen zitzaizkiolako, unibertsoa sortu zuen Ahalmenek itzela edo Izate Bat edo 'Erabat Ezberdina den Zerbait' irudikatze ohitura duen jendearentzat erakargarriak izan daitezkeen.

Egiaz, hamaika ahalegin egin ditut gauza guztiak egin dituen Ahalmenearen handitasuna deskribatzen; baina esan nuenez, ezinezkoa zait giza terminoez deskribatzea **zure IZATEAREN ITURRIAREN Errealitatea**.

Zeruko Kontzientziaz leunkiro ukitutako eta espiritualetan eboluzionatutako arimek adierazten dute esperientzia hori guztiz ederra eta aintzagarria dela eta erabat ahaztezina, nahiz eta oraindik ez izan guztiz deskribagarria giza terminoetan. Esperientzia mistiko hori posible da gogamenaren bibrazio-frekuentziak jada altuak direnean eta kontzientzia osoa Zeruko Kontzientziaren izpiez bete-beterik dagoenean. 'Sentimenduek' adimenak eta garuneko zelulek baino zerikusirik handiagoa duten egoera bat da.

Kasu honetan, zeinean Bitartekariaren gogamena eta bere garunaren zelulak zure **IZATEAREN ITURRIAREN Errealitatearen** deskribapenaz bete behar duen eta berak hitzen bidez interpretatu behar

duen, nik kontuz ibili beharra daukat indar handiegiz ez eragiteko bitartekariaren kontzientziaren bibrazio-frekuentzietan, non bere garuneko zelulak lanean ari diren. Zenbait unetan arriskutsua izan zen aurrera egitea, eta horregatik eten egin behar izan nuen bere ordenagailuaren funtzionamendua harremana hausteko.

Orri hauek ikasten, meditatzen eta xurgatzen hasi baino lehen, GUTUNOK irakurtzen dituzten guztiei argi eta garbi utzi nahi diet gutun hauen bidez lortu nahi dudana helburua dela -batez ere- nire giza pertsonarekin eta irakaspenekin nahastu diren mitoak desagitea. Nire asmoa zera da: azkenean dogma eta erlijio-doktrinak modu naturalean hiltzea mundu guztian zehar, Salomonen Tenpluan animalien sakrifizioak amaitu ziren bezala.

Bigarrenik, etorri ere etorri naiz, elizei dituzten Jainkoaren eta bekatuaren nozio arkaikoak aska ditzaten laguntzera. Harik eta pertsona bakoitza bere bizitza garatzen den moduaren arduraduna delako ulerkuntza argiaren egunsentia sortzen hasi arte, benetako aurrerapen espiritualik ez da posible izango.

Hirugarrenik, etorri naiz gogamenetatik kentzera, hotsandia, handitasuna eta mugagabeko ahalmen eraginkorra duen 'Jainko Guztiahaldun' baten irudiak, zeinak birtutedunak saritu eta gaizkileak zigortzen dituen. Sineskera horiek, pozgarriak badira ere, guztiz okerrak dira.

Laugarrenik, Iztearen Egia azaltzen ari naiz azkenean ezabatzeko, zeruan goiko alde batean eserita dagoen 'Jainkoaren' konzeptu zaharra, non mundua eta horrek daukan guztia sortu omen zuen denbora labur samar batez.

Boskarrenik, Zientziari berariaz laguntzera etorri naiz, hau da, KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN eta partikula elektrikoak sortzearen artean dagoen leizea betetzen laguntzera. Dimentsio espiritual ikusezinaren eta mundu ikusgai materialaren arteko zubi hori gabe, Zientzia ez aurrera ez atzera egongo da ideia eta kontzeptu zaharretan, aurrera egin beharrean ikerketa espiritual/zientifikoen erresuma berrietan gizateria hobetzeko.

Etorri ere etorri naiz IZATEA EMAN ZIZUN...'HAREN'...BENETAKO IZAERA erakustera - BANAKOTASUNA eman zizunarena-. Ezagutza hori izan ezik, zeinak jakinaraziko baitizu zure izatearen 'izaera' 'duala baina espirituz eta gorputzez elkarrekin erlazionatua erabat', zeu ere iltzaturik geldituko zara oraintxe zauden kontzientzia maila berean.

Honako hau argi eta garbi adierazi nahi dut:

'Ezer ez datorrela inoiz Ezerezetik'

Esaera hori gauza jakina da zuen artean, eta bene-benetakoa da. Hala eta guztiz ere, bada IZATEAREN OINARRI bat, betierekoa, mugagabea eta sendoa; eta HORIXE jakinaraziko dizut orain:

Zu ez zara 'sortua' izan, zuk zeure 'izatea' HARENGANDIK atera duzu.

Bistan denez, zu ezingo zinen atera zeure kontzientziarentzat guztiz arraroa den zerbaitetik. Nire Bitartekariari eskatzen ari natzaio munduko adibide ulergarri batzuk aukeratzeko:

Ezin izango litzateke pastel barrubete bat atera melaza upel batetik, eta okel xehetua zela adierazi.

Ezingo litzateke naranja bat zukutu ondoren, zukuarekin jenjibreko garagardoa egin.

Ezingo litzateke globo bat airez bete, leherrarazi eta gelatina tantaka aurkitu.

Goian aipaturiko adibide guztiak, nire Bitartekariak aukeratuak, logika kasuak dira.

Nik, zu jabe zaitezen nahi dut unibertso osoa logikaren manifestazioa, eta erlazonatutako kausek sortu dituzten ondorio logiko sendoen manifestazioa dela.

Zure unibertsoa KAUSA eta ONDORIOA da, ikusgai egindakoa.

Hori, existentziaren printzipio aldaezina da. Baldin badira aldaketak, esaterako: esperientzia paranormalak edo bat-bateko sendaketak; pertsona arruntak zur eta lur oihukatzen du, eta zientziak uko egiten dio horrelakorik posible dela sinesteari. Nire azalpena sakonduz joan ahala, apurka-apurka ulertuko duzu nola gertatzen diren aldaketa horiek modu logiko eta eraginkor batez. Beste era batez, aldaketok lege espiritual naturalen arabera gertatzen dira, eta beti izaten dira behar den helburu baterako. Zentzurik ez duen deus ez dago kreazioaren inongo aldean -ezta inurrian edo eltxoan ere- ez bada entitate baten gogamena akastun jaio izana edo kaltetua izana.

Beraz argi dago: bizi eta ari zara unibertso fisiko batean, zeinak helburu jakin baterako adimenik eta jarduerarik gorenaren erakusten baitu 'materiaren' beraren kreazioaren baitan, hots, entitate banako guztien gorputz fisikoetan, planetetatik hasita gizakiengana iritsi arte. Zoritxarrez, **ADIMEN eta HELBURU ARDURATSU** maila altu hori, oso gutxi dago garatua sortutako entitate berberen kontzientzian landareetatik hasi eta gizakiengana iritsi arte.

Beste modu batez esanda, GORPUTZAK, non zure bizia zuzentzen duzun, non pentsatu, sentitu, eta gogoak ematen dizuna egiten duzun, adierazten du organo fisikoetan eta horien funtzionamenduan adimen eta helburu amultsu maila askoz handiagoa, zure giza kontzientziak baino.

Giza interesak nagusiki erlazonatuta daude eguneroko biziraupen pertsonalaren arazoekin, atseginez gozatzearekin eta asetasun fisiko/emozionalarekin.

Helburu horiek lortzeko, jende gehienak 'materiaz' egindako produktuak erabiltzen ditu. Zientzialarien gogamenek ere ezin dituzte guztiz askatu lur existentziako sekretu ezkutatuak, eta, ezagutza zientifikoak dituzten arren, inongo ezagutzarik ez dutenak bezain trabatuta daude existentziaren patu aldakorrean.

Beraz, ondorio logikoa da **'HURA'**, zeinetik zuk izate fisikoa **atera duzun, ITZELA izatea; neurritz ezezik NAHIAREN INDAR ITZELA ere izatea: buru-adierazpenaren eta sormenaren Nahia, alegia.**

Irudikatu, une batez, unibertso materialaren neurria, EGUZKIA eta bere beroa, Ilargia, lur planeta, eguzki sistema, izarren galaxiak eta materia ikusgai hori guztia erabat elkarren mendekoa izatea, nahiz eta gorputz planetarioen mugimenduaren mendekoa ere den eta funtzio eta mugimendu sendoaren Lege Unibertsalei atxikia izan. Unibertso zabal honek zure **IZATEAREN OINARRIAN** bertan izan zuen sorburua eta bertatik aterea izan da, eta **BIZIAREN INDAR/ENERGIA** osoa ere **IZATEAREN OINARRI** beretik atera da.

Beraz, ez gogogabetu nik zure **IZATEAREN ITURRIAREN OSAGAI ESPIRITUALAK** aztertuz zuretzat egiten ditudan ahaleginetan, ikusten baldin baduzu ezagutzen duzula osagaiok zeintzuk diren eta oso mugaturiko neurri bateraino zeuk ere badauzkazula kontzientziaren osagai espiritual berberak.

Zeure **IZATEAREN ITURRITIK** hartu duzu espiritualki, mentalki, emozionalki eta fisikoki zaren guztia.

Nik, hori nola izan zitekeen azaldu baino lehen, zenbait urrats egin dezazun nahi dut zure gogamenari

laguntzeko ...HAREN... neurrigabetasuna bereganatzen, zeinetik zure izatea baitator.

Hurrengo orrialdeetatik GUTUNA amaitu arte irakurri ahala, medita eta irudika itzazu paragrafoak banan-banan, zeren hitzak soilik horrela hasiko baitira izaten gero eta ulergarriagoak, eta eskuratzen ere hasiko baitira duten egiazko esanahiaren *errealitate espiritual*a.

DENA (espirituala, ikusezina/ikusgaia, irudikatua) KONTZIENTZIA/EZAGUTZA da.

KONTZIENTZIAK barne hartzen duen izaera nagusia EZAGUTZA da.

Ezinezkoa da kontzientzia izatea ezagutzarik izan gabe.

Dakusazun, ukitzen duzun, entzuten duzun, sentitzen duzun, eta dakizun guztia

ikusgai egindako

KONTZIENTZIA/EZAGUTZA da.

Unibertsoan ez dago ezer, ikusgai egindako KONTZIENTZIA ez denik.

KONTZIENTZIA/EZAGUTZA mugagabea eta betierekoa da.

Bi KONTZIENTZIA DIMENTSIO daude, biak lur existentzian den zeure planotik haratago eta baitan; hots, lur existentzia hori 'forma solidoaren' 'materia' astunaren planoa da.

KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN GORENEKO DIMENTSIO UNIBERTSALA ezin da inoiz izan espiritu banako batek erabat edo benetan ezagutua.

ULERTEZINA DA. OREKAN DAGO.

AHALMEN, JAKINTZA, MAITASUN eta ADIMEN ororen ITURRI BAKARRA da.

Orekan den KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN DIMENTSIO UNIBERTSALA,

ISILTASUN eta BARETASUN egoera bat da,

nondik ateratzen baitira soinua, kolorea, forma indibidualizatua eta unibertso ikusgaiaren baitan den

ageriko sormen guztia.

Orekan den

KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN GORENEKO DIMENTSIO UNIBERTSALETIK

kreazio osoa irten da: hots, existentziaren dimentsio ikusezin guztiak espiritualitatearen ordenean

jaitsiz, DIMENTSIO UNIBERTSALAREN atarietatik bertatik lurreko

sustantzia bizigabeen bibrazio-frekuentzia indartsuenetaraino, eta haratago, kontzientzia eta

anti-Egiaren ezin esanezko gaiztotze-izugarrikerietaraino.

KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN GORENEKO DIMENTSIO UNIBERTSAL hori

ez dago soilik espazioan.

ESPAZIO OSOA DA.

BERA hauteman ezin daitekeen eran dago toki guztietan. Atomoaren terminoetan pentsatzen dutenentzat -esan daiteke

atomoan den **ESPAZIOA BERA** dela- beraz, **BERA** 'isilik eta orekan' dago elementu guztien 'espazioaren' baitan eta 'materiaren' baitan.

KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN IZAERA zera da:

ASMO jardueragabea orekan.

Beraz, Kontzientzia Unibertsala egoera bat da, zeinak adierazten baitu **ASMO INDARTSUA**, mugagabea, betierekoa, neurrigabea, aratza, gardena eta ederra.

Asmo hori,

BERE IZAERA ADIERAZTEA da.

KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN IZAERAREN

ASMOA da:

NAHIAREN ETA HELBURUAREN ERABATEKO OSOTASUNA, beti 'besarkada' batean uztartuak.

Nahi Unibertsala zera da: irtetzea eta sortzea.

Helburu Unibertsala da: sortzeari forma indibidualizatua ematea eta esperimentatzea.

KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN ASMOAREN

GORENEKO DIMITSIO UNIBERTSALAREN baitan,

NAHI UNIBERTSALA eta **HELBURUA**, elkarren arteko bridatze-egoera batean daude, biak **ISILTASUNAREN** eta **BARETASUNAREN**

oreka perfektuan.

NAHI UNIBERTSALA, **ADIMEN UNIBERTSALA** da.

HELBURU UNIBERTSALA, **MAITASUN UNIBERTSALA** da unibertsalki orekan -elkarren arteko bridatzean,

ZEINETIK forma hartu baitute gauza ikusgaiek eta ikusezinek, eta giza bulkada guztiek.

ERREALITATE UNIBERTSALAREN osotasuna zeure baitan jasotzerik baldin bazenu, **BERE** ahalmen eztagarriak desintegratua izango zinateke, eta formarik gabeko kontzientzia/ezagutza bihurtuko zinateke.

BERAK gizatasun banakotua orozgainditzen du; zure eguzkiaren beroa eta argia, ilunean diz-diz egiten duten ipurtargien argia baino bilioika aldiz indartsuagoa den bezalaxe.

.....

Ni lurrean nengoelarik, bereizi nituen 'zeruan den zure Aita' eta 'zure baitan den Aita'.

Zera nioenean:

'zeruan den zure Aita',

ADIMEN UNIBERTSALA

esan nahi nuen.

Juduen emakumeekiko jarrera zela eta, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** alderdi hori baino ez nuen

aipatu.

Gaur egun, generoen arteko berdintasunaz hain kontziente zaretenoi honelaxe esango dizuet:

‘AITA - AMA - KONTZIENTZIA’

orekan

KONTZIENTZIA UNIBERTSALA/EZAGUTZAREN baitan, non

‘Aita-Kontzientzia - Adimen Unibertsala den’

‘Ama-Kontzientzia - Maitasun Unibertsala den’

**Energia Sortzailea den ‘Aita Kontzientziaren’ -elektrizitatea- TRESNA eta
Energia Sortzailea -magnetismoa- den ‘Ama Kontzientziaren’ TRESNAK
elkarren arteko bridatze-egoera batean -orekan- daude.**

**‘AITA-AMAREN’ tresnak (elektro-magnetismoa) KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN
baitan orekan daudelako,**

BERA ez dute inoiz atzemango ESPAZIOAN zientzialariek, espazioa bera sakon zundatuta ere.

BULKADA: ‘Aita Kontzientzia-NAHIA’, JARDUERA ADIMENTSUA da

**BULKADA: ‘Ama Kontzientzia HELBURUA’, BIZIRAUPENERAKO ELIKATZEA da.
-bata bestearekin orekan dago-**

‘AITA – AMA KONTZIENTZIA’

**INDAR inbertsonal ahaltsua da – nahiz eta zuretzat BERA pertsonala izan, BERAREKIN kontaktua
egiten bilatu aurretik ere.**

Espiritualki eboluzionatu ahala sentituko duzu HORI, zeren IZATEAREN ERREALITATEA baita.

Toki guztietan DAGO, eta guztiaren baitan.

AITA KONTZIENTZIA

**MAITASUN ADIMENTSUA da, zeinak forma konplexuen munduari energia adimentsua eta
bulkada ematen baitio, fisikoki elektrizitate bezala adierazia.**

AMA HELBURUA

**ADIMEN AMULTSUA da, zeinak helburua eta biziraupenerako bulkada hornitzen baitie
forma konplexu indibidualizatuei -magnetismoa- atxikidura eta arbuioa bezala
adierazia.**

Horiek dira KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN IZATE OROREN

JATORRIZKO BULKADA UNIBERTSALAK.

**KONTZIENTZIA UNIBERTSALA zure IZATEAREN – ADIMENAREN –
MAITASUNAREN ITURRIA da.**

Hauxe da IZATEAREN EGOERA, kreazioa izan baino lehenago.

KONTZIENTZIA/EZAGUTZA,**OREKA EGOERA batean.**

Zu, berriro ere, sar zaitez nahi dut oreka kontzientea duen barne-egoera batean, non pentsamendu oro isiltzen den, eta zure gogamena isiltasunean bizi den. Barne-kontrolean zaude, zure gogamena eta emozioak ez daude banaturik jardueran eta sentimenduan. Gerta liteke zuk zeure baitan nabaritzea ahalmen areagotze bat, indarra, bakea eta alaitasuna. Hori, zuregan forma indibidualizatuan adierazitako hori, **IZATEAREN EGOERA** da, nondik kreazioa atera baitzen.

Nabari dezazun nahi dut pentsamendua sartzen den momentuan, oreka ezinezkoa dela.

Honako honetaz OHAR ZAITEZEN nahi dut: DIMENTSIO UNIBERTSALA, formarik gabeko BULKADEN DIMENTSIO bat da. Ez dauka sortzeko inongo egitasmorik. ZATITU GABEKO FORMA-egoera batean dago.

Orekak, -aurkako **BULKADEN** arteko bridatzeak- 'higitzeko' eta elkaturik egotekoak, sortzen du elkarri eutsitako energiaren espiral mugagabea.

ELKARREN ARTEKO BRIDATZEAREN ENERGIA -ELKARRI EUTSITAKOA- halakoa da, ezen banakotasunak ezin duen irudikatu ere egin. Lehen esan dizudanez, baldin eta banakotasunak **ELKARREN ARTEAN BRIDATUTAKO** 'Mugimendua eta Atxikidura' **-BULKADEN DIMENTSIO UNIBERTSALEAN** sartzerik izango balu deseginda geratuko litzateke berehala, eta **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** orekara bihurtuta. Hausnar ezazu **KONTZIENTZIA UNIBERTSALEAN** den **BULKADA BIKIEN ARTEKO BRIDATZEAREN** barnean den irudikaezineko Ahalmen itzelaz! **BULKADA** horiek zera dira oinarri-oinarrian:

KONTZIENTZIA/EZAGUTZA**ASMOA****NAHIA>>>>>>>><<<<<<<<HELBURUA****ADIMENA MAITASUNA**

honetaxe uztartua:

Maitasun Adimentsua eta Adimen Amultsua

Bulkada hauek: Mugimendua Atxikidura – Arbuioa

ELEKTRIZITATEA.....orekan.....MAGNETISMOA

Aurrekoak deskribatzen du MUGAGABEKO DIMENTSIO UNIBERTSALA, BIG BANGA izan aurretik!

Orain badakizu **Aita-Ama Prozesu Sortzailea eta sortze fisikoaren tresnak**, guztiak, oreka egoera batean daudela **Dimentsio Unibertsalaren** baitan; baina orain **oreka** horrek lehertarazia izan behar du zera sortzeko:

FORMA INDIBIDUALA EDO BANAKOA

Jakin ere badakizu, **Betiareko BULKADA Mugagabeak** elkarren arteko bridatze-egoera batean daudenez gero, **BULKADA** horiek energiaren sekulako intentsitatekoak direla, zeinarekin alderatuz gero atomo-zatitzeak dakarren energia atomikoa 'puf' hutsa den, garrantzirik ez duen 'tik' infinitesimala, alegia. Lehentxeago aipatutako guztiaren jabe izan zaitez nahi dut; zeren Big Bang unean gertatutakoaz duzun ulerkuntzak emango baitizu **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN leherketaren** momentuan

gertatu zelako begiztatze bat; hain zuzen ere, forma banakoaren sortzeari leku emateko.

KONTZIENTZIA UNIBERTSALA BITAN URRATU ZEN !

NAHIA eta HELBURUA

‘Aita’ ADIMENA eta ‘Ama’ MAITASUNA-ELIKATZEA.

Lehertu ziren modu independentean eta aldi berean elkarrekin jarduteko.

Euren ‘Tresnak’ honako hauek izan ziren hurrenez hurren:

Elektrizitatea eta Magnetismoa.

OREKAREN leherketatik irten zen:

BURU-ADIERAZPENAREN ASMO OSOA.

‘IZATEAREN Kontzientzia Unibertsala’ zera bihurtu zen:

‘Niaren’ banako kontzientziaren bulkada, buru-adierazpena exijituz.

‘Materiaren’ dimentsioan sinonimoak dira BIZIA eta NIAREN dominioa edo jabetza.

Horiek ‘materiaren’ kontzientzia bihurtu ziren.

Zer da **BIZIAREN** kontzientzia?

Aita – Adimena	eta	Ama – Maitasuna da
Mugimenduaren Bulkada,		Helburuaren Bulkada – Elikatzea – Biziraupena.
Elektrizitatea bezala ikusita,		Magnetismoa bezala ikusita
Materian.		

Irudikatzen has zaitezke gero, **KONTZIENTZIAREN** leherketa! **EZAGUTZAREN** eztanda!

Nik zuri Big Bang momentuan gertatu zena irudikatzen laguntzeko, saia zaitez oroitzen uneren bat, zeuk ere kontzientzian leherketa bat esperimentatu zenuena!

Hori gertatzen da, garrantzi handiko helbururen bat lortzeko zeure ‘izate’ osoa ipintzen duzunean: Aurretiaz gogotsu zaudela, zeure zereginak gauzatzeko irrikan zaudela, garrantzigabeko inguruabarren batek edo pertsona sorgorren batek oztopoa jartzen die lortu nahi dituzun helburu desiragarriari. Nola sentituko zinateke? Zure arreta banatua gertatuko litzateke, eta zu lehertu egingo zinateke. Berriro, bitartekariari -giza terminoetan- esan nahi dudana adibideetan jartzeko eskatu behar diot, zeren **lurreko kontzientziarik txikiena KONTZIENTZIA UNIBERTSALETIK** aterea baita.

Aireportuan zaude atzerrian oporrez gozatzeko prest eta gogotsu. Bidai Agentziako mahaira heltzean jakiten duzu ez dagoela ez agiririk, ez billeterik, ezta erreserba-agiri arrastorik ere hegaldirako eta ostaturako, **nahiz eta den-dena ordaindurik egon zure kreditu txartelaren bidez.** Nola sentituko zinateke?

Soinean oso garestia den jantzi dotore bat duzularik, garrantzi handiko bezeroei harrera ona egiten ari zatzaizkie, eta **miliadun kontratu eder bat egitekotan zaudela**, zerbitzariak plater bete gisatu bero botatzen dizu buru gainera. Nola sentitzen zara?

Erotera zoaz, eta aparkalekura ateratzean autoaren gurpilak eta ateak lapurtu dituztela ikusi duzu **egun-argiz!**

Gupida handiz diru zorroa ireki eta zure txanponengatik negar zotinka ari den eskale elbarri bati emateko

asmotan zabiltzala, gizonak tente jarrita indarrez kentzen dizu diru zorroa, eta hanka egiten du atleta batek bezala. Nola sentitzen zara?

Inguruabar horietan guztietan **kontzientzia-ekimen** bizia izango zenuke zeure gogamenean. Zure burua planez beteta egongo litzateke -bakean- hortik ateratzeko eta helburu jakinen bat lortzearen zerbait egiteko.

Zure asmoa eta helburua elkarri loturik egongo lirateke -beraz orekan-, baina ohar zaitez gero eta aurreratze tentsio handiagoa litzatekeela zure helburura hurbildu ahala. Tentsioa zenbat eta handiagoa izan, leherketa orduan eta indartsuagoa.

Egiaz, egon zintezke

KONTZIENTZIA UNIBERTSALA/EZAGUTZAREN egoera berean.

ASMOA

'Aita' ADIMENA orekan **'Ama' HELBURUAREKIN**

izatea eta forma emateko, sortzeko asmoa duzun planari.

Zure ez tandaren ondoren, irudika al ditzakezu ondorengo kaos mental/emozionala, argi pentsatzeko ezintasuna, etorriko liratekeen pentsamenduak, bata bestearen atzetik adierazpena eskatuz, bat bera ere ez zentzuzkoa edo logikoa?

Saia zaitez konturatzen ZU -forma banakotua- makrokosmosaren mikrokosmosa zarela. Zu **buruorratz** baten burua zara **KONTZIENTZIA/EZAGUTZA UNIBERTSALA** adieraziz, bai -orekan- pentsamenduak bare-bare daudela meditatzen duzunean, bai -kontzientzia aktiboa bezala- pentsatzen, sentitzen, planak egiten eta sortzen duzunean.

Hortaz, zure kontzientziaren eztanda ñimiñoa eta 'zeruetako' leherketa erlazioa baditzakezu, ondorengo kaosaren ideia txikiren bat izango duzu; bai **-une batez- DIMITSIO UNIBERTSALAREN** baitan, nola denbora-eonetan oraindik formarik gabe dagoen 'materiaren' dimentsiotik sortutako hedatze berriaren barnean.

Beraz, zuetako askok berregokitu egin beharko duzue sortzeari buruz duzuen ideia. Erabateko kaos egoera bat bezala hasi zen. BULKADA UNIBERTSALAK banatu egin ziren. Aurrez ez zegoen egitasmorik banakotasunaren hasiera zuzentzeko edo kontrolatzeko. BULKADAK oraindik ez elako 'forma kontziente' edo gidaritzarik gabe zeuden. **BULKADA NATURALAK** ziren, **KONTZIENTZIAN** funtzio oldarkor batzuk burutzeko (prest zeuden), baina gorago ez zuten inongo **Indar Zuzentzailerik** adimentsuki mugimendu espezifikoan edo atxikiduran zuzenduko zituenik. Bakar-bakarrik zeuden. **KONTZIENTZIA/EZAGUTZAREN BULKADAK**, banatuak eta galduak, zirrarak jasotzeko gai ziren, baina ez zegoen jasotzeko zirrarak, ez baziren elektrizitatearen 'mugimendua – jardueraren' eta magnetismoaren 'atxikidura – aldarapenaren' barne kaosarenak.

Eta KONTZIENTZIAREN KAOS hori partikulen kaosa bezala manifestatua izan zen kreazioaren barruan. Partikula elektrikoen kaos-hedatze horren barruan, hala ere, bazen **'NIAREN'** jabetzari buruzko oinarritzeko ezagutza. Kaosa gauza bat zein beste bat izan, **NIAREN jabetza** nabarmendu zen **lekualdatzearen, kontrola hartzearen eta sortzearen 'Aita' Asmoan.**

NIAREN izaerak hasieran forma hartu zuen energia elektrikoaren karga positibo batean. Bera **'NI'**-indar nagusi bihurtu zen protoi bezala, karga elektriko negatibodun satelitea zuela, zeinarekin

atxikidurazko 'Ama' Helburua aktibatua izan zen baldintza horietan: karga elektriko positiboa eta karga elektriko negatiboa elkartuz.

Elkarren zale egin ziren espezie bizidunen izaki maskulino eta femenino eboluzionatuez esan litekeen bezala, eta bat egin zuten.

Aldarapen 'Ama' Helburua ere aktibatua izan zen; bi karga elektriko positibo edo bi karga elektriko negatibo elkartzea eta negatiboki erreakzionatzea gerta zitekeela ematen zuenean, Berak tartean sartu eta banandu egin zituen, bere modukoa den ama eboluzionatu batek bananduko lituzkeen bezala borrokatzeko zorian haserre-haserre dauden bi bihurri zital.

Horixe izan zen forma bakarra kontzientzia/ezagutzaren kaosaren barnean luzaro, zeren denborak ez baitu garrantzirik berez materiaren baitan. Denborak garrantzia du soilik karga elektrikoen artean ezagutza kontzientearen kontaktu bat dagoenean atxikidura edo arbuioa sortuz; gertatzen ari diren hurbiltze eta gertakizunen progresio bat dagoenean; eta erdietsi beharreko helburuak daudenean.

Horrez gain, denborak ez du zentzurik.

Kreazioa, era indibidualean eta elkarren artean -batak bestean eraginez- funtzionatzen duten **LEHEN BULKADEN** emaitza da, **ZEINEK** betetzen baitituzte kontzientziaren baitan grabaturik dauden behar erantsiak, behar horiek dira hasieran buru-adierazpena handitzea eta esperimentatzea, ondoren beste banaketa bati bidea ematea, eta gero, segurtasun zentzua eta barne-erosotasuna berreskuratzea, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** harmoniaren baitan ber-elkartuak izateko. Indar bultzatzaile horretatik -izatearen harmonia elkartua lortze aldera- heldu zen elkartzeko bulkada maskulino-femeninoa, arimaren kontzientzian -ezkutuan- den poza berreskuratzeke.

Aurreko ahapaldiaren analogia bat egin liteke gurasoen ohiturarekin, zeinaren arabera goizez lanera joan eta arratsalde itxaropentsu familiarekin eroso elkartzera itzultzen diren. Eta familiarekin bat eginik, indarberritu egiten dira hurrengo egunean berriz munduari aurre egitera ausartzeko.

Beraz,

BURU-ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN

sortze prozesuak

bilioika urte iraun zuen denboran zehar.

BIG BANGA edo Leherketa handia izan ondoren, **Aita – Ama sortze-prozesua** bi energia ezberdinetan banatu zen, eta bi energia horiek etengabe banaturik eta batera jardun zuten; independenteak ziren, baina elkar bridatuak batera lan egiteko, ezaugarri edo 'izaera' indibidualak zituzten eta funtzio ezberdinak. Hortaz, bere lana ezberdina baina zatiezina zen/da.

Zuk badakizu, eta meditazio prozesu batez, erabat ulertuko zenituen **'Aitaren'** 'izaera' eta **'Amaren'** 'izaera' **Dimentsio Unibertsalaren orekaren** baitan.

Labur labur, **'Aitaren'** 'izaera', eraginkorra eta sortzailea izatea eta sortze lana egitea da. 'NIAREN' izaera ere bada existentzia indibidualizatua izatea. Izaki bizidun orok -listorretik hasita hipopotamoraino- badu 'NIAREN' zentzu indartsua eta hori babestu beharra.

'Amaren' 'izaera' da **'Aita adimenak'** hasitako kontzientzia elektrikoaren 'planari' forma ematea partikula

elektrikoak bilduz.

‘Aita’ eta ‘Ama’ kontzientzia -JATORRIZKO BULKADAK- orekaren baitan daude biak, eta **DIMENTSIO UNIBERTSALAREN IZAERAREN**AK dira; eta beraz, **forma indibiduala** sortzen dutenean, **DIMENTSIO UNIBERTSALAREN IZAERAREN** lana burutzen dute, zeina den: **Hazkundera, - Jaten eta elikatzen hornitzea – Sendatzea – Babestea – Beharrak asetzea Legean eta Ordenean oinarrituriko sistema baten barruan..... BIZIRAUPENA.**

‘Aita’ eta ‘Ama’ KONTZIENTZIAREN energiak, **BULKADAK** dira, biak **DIMENTSIO UNIBERTSALAREN** baitan bridatuak; eta **orekatik** askatuak direnean, sortze lana egiten dute gaitasun handiz. Gainera, kontuan izan ezazu beren lanaren handitasuna kreazioaren baitan, mundu guztian zehar. ‘Aita/Ama’ bulkadek sortze-maila bakoitza bultzatzen dute: elementuak, molekula eta zelula biziduna eratzetik Mamut bikainera arte. Gurasoen baitan ere senez lan egiten dute, elkartzera, sortzera, fruitu ematera, eta umeak haztera bultzatuz.

Zenbait gurasok beren progeniea (arrautzak, kumeak edo gizakumeak) jaio ondoren alde egiten dute. Horiek, **NIAREN** zentzu indartsuagoa duten gurasoak dira berezko Aita-Amatasun sena baino.

Honetara ezkerro, erabat ulertu behar duzu BULKADA hitzak zer esan nahi duen.

Beharbada uste duzu horrek ‘oso lainotsua den sormen-forma bat’ ematen duela; baina pixka batez hausnartzen baduzu, agian konturatuko zara, azkenean, ez gizakiak, ez animaliak edo insektuak, ezta landareak ere, ez duela inongo jarduerarik burutzen dimentsio materialaren baitan, ‘kontzientziaren’ barne hertsatzerik gabe, zeina **‘bulkada’** bat den. Izan daiteke eguzkira begira jartzea, korrika egitea, jatea, lan egitea, lo egitea, eroatera joatea edo seme nahiz alaba bat izatea. ‘Bulkada’ beti jardueraren aurretik izaten da, baita begiekin kliska egitearen aurretik ere. Are gehiago, ez dago jarduerarik hasiko duen bulkada bakar bat ere, helburu batek zuzendua ez bada.

Landareek, loreak eta hostoak birarazten ditu hazkunderako eguzki-izpiak har ditzaten, jendeak korrika egiten du forman egoteko, jan egiten du gosea kentzeko, lan egiten du bizitza irabazteko, lo egiten du tentsioetatik ihes egiteko eta energiaz betetzeko, eroatera joaten da janaria lortzeko; den dena biziraupenera eta erosotasun pertsonalera zuzendua.

Orduan, **BULKADAK** kreazioaren atzeko eta barneko **ERREALITATEA** dira.

Materia guztia, atzera, partikula elektrikoek jatorrizko formara itzuliko balitz, **Bulkada Unibertsalak** beren horretan geldituko liriateke, eta azkenean forma emango liokete beste kreazio bati. **BULKADAK** betiko dira. Halere, ‘materia’ bizidun barneko partikula elektrikoak ez dira iraunkorrak, baina arimak aurrera jarraitzen du.

Zuk buruan dituzun bulkada elektrikoekin **pentsatzen duzu**. Nerbio sisteman dituzun bulkada magnetikoekin **sentitzen duzu**: horiek bulkada elektrikoak orekatu eta bateratu egiten dituzte kohesio-osotasun batean.

Atxikidura magnetikorik gabe zure sisteman, zu mugimendu hutsa izango zinateke, inondik ere ez zinateke ezagutza izango. Oraintxe duzu tenorea **1.Gutunean** deskribatzen diren basamortuko ene esperientzietara itzultzeko.

Gogoratuko duzu Jordan ibaira Juanek bataia nitzan joan nintzela, errebeldea nintzela, Jehovak gizakiak bekatuengatik zigortzen zituela zioen judu irakaspenen aurkakoa nintzela, erabat. Senez nabaritzen nuen kontzeptu faltsua eta ankerra zela, eta beraz, arbuiatu egiten nuen. Sortzeari buruzko Egia ikusi ondoren, ezin nuen ulertu **Kontzientzia Perfektuak** zergatik ez zituen izaki perfektuak sortzen, **beren Sortzaile Maitasun Adimentsuaren irudira eginak.**

Sortzaileari - '**Kontzientzia Unibertsalari**' - galdetu nion gizateriak zergatik jasaten zuen hainbeste oinaze eta gaiztakeria. Orduan argi eta garbi erakutsi zitzaidan, gizakiek esperimendatzen zituzten arazo guztiak izatearen '**erdi gunetik**' sortzen zirela, (zientziak 'ego' deitzen dio orain).

Berak bere burua adierazten zuen 'nortasunean'

BEHAR BULTZATZAILE bat bezala, kritika edo eraso emozional/fisikotik babesteko, eta antzeko **BEHAR BULTZATZAILE** bat, gainontzekoak apartatzeko, bizitzaren karreran lehendabizikotz iristearren. Manifestatu ere egin zen 'nortasunean'

BEHAR BULTZATZAILE bat bezala norberarentzat onena den guztia eskuratzeko, gainerakoak aurka egon arren; eta antzeko **BEHAR BULTZATZAILE** bat nork bere jabegoak atxikitze, direla ahaideak, adiskideak, ondasun materialak edo lorpenak, edozein aurkakotasun egon arren.

Jakinarazi ere egin zitzaidan **kreaziorik ez litzatekeela**, '**izate sortzailearen oinarritzko BI bulkada**' betiereko eta aldaezin horiek gabe.

Hauxe da kreazioaren sekretua, eta existentziaren eta 'izate banakoaren' sekretua.

Taldean batera lan egitean, banaturik baina banaezinik mundu ikusgai, **bulkada biki hauek izan ziren** bitartekoak, zeinen bidez '**materiaren' gaia bera** sortua izan baitzen goreneko '**KONTZIENTZIA UNIBERTSALETIK**'.

Sormenaren bulkadetako bat, **JARDUERAREN 'NIAREN'** jabetza da.

Jardueraren bulkada hori unibertsala da eta iturri bakar batetik dator:

'Jarduera', KONTZIENTZIAN den mugimendua da, eta aldi berean KONTZIENTZIA mugimenduan.

Beste bulkada sortzaileak zentzu figuratuan, **bi alde** ditu eta biak daude aurkako norabideetara begira.

Hauexek dira:

ATXIKIDURA – ARBUIOA

Erakarri >>>>>>>>>> NI-RANTZ NI-TIK <<<<<<<<<< arbuiatu

Honelaxe ere ezaguna:

ERAKARTZEA – ALDARATZEA

Erakarri >>>>>>>>>> NI-RANTZ NI-TIK <<<<<<<<<< aldaratu

KONTZIENTZIAREN baitan.

Lurreko existentzia, bi modu horien bidez baino ez da lortua izan.

Unibertso osoa 'Ahalmen Sortzailearen' manifestazio bat da, aktiboa IZATE FISIKOAREN

Bulkada Biki horien barnean – 'materia' eta forma banakoa sortuz.

Hauxe da unibertsoaren oinarritzko 'sekretoetako' bat.

Ikusi nuen **'Nortasunaren'** edo **'egoaren'** - orain horrelaxe esaten zaio- 'esentzia',

'NORTASUNAREN ZAINDARIA'

bezala

izan zela sortua eta erakargarriro grabatuta zegoela **bulkada magnetikoarekin** zera bermatzeko:

BARNEKOTASUNA eta BIZIRAUPENA

'NI' indibidualaren izaera babestearren.

Hori lortu zen **Izatearen bigarren Bulkadaren bi aldeak**

(ATXIKIDURA-ARBUIOA) erabiltzean indibidualitatea bermatzearren.

ATXIKIDURA aldeak ekarri, lortu, erakarri, exijitu, kendu, oratu, eta gogor heltzen die jendeari eta erreklamatzeko dituen jabegoak. **BULKADA** horrek segurtasunaren ilusioa sortzen du laguntasunean eta jabegoetan. **'AMA KONTZIENTZIAREN' 'tresna'** da, familien, komunitateen eta nazioen eraikitzea inspiratzen duena. Edertasuna, alaitasuna, harmonia eta maitasuna sor ditzake.

'EGOAK' bultzatua denean, bizitzak zapuztu eta komunitateak suntsitu ere egin ditzake.

ARBUIOA aldeak aldaratu, alde batera utzi, bultzatu, eta itzuri egiten du nahi ez duen guztia: jendea, animaliak eta jabegoak. Horrela, **BULKADA** horrek barnekotasun eta seguritate ilusioa sortzen du. Horixe da familietan, harremanetan, komunitateetan eta nazioetan hausturak eragiten dituen **BULKADA**. Ustez bizitzak salbatzera dago orientatua, babesa eta barnekotasuna bermatuz; baina indar suntsitzailea da **'EGOAK'** bultzatua denean.

IZATEAREN BULKADA BIKIOK gabe, gauza guztiak uztarturik geratuko ziren bata bestean, **orekan den 'AHALMEN SORTZAILE UNIBERTSALAREN'** denbora gabeko betikotasunaren baitan. **BULKADA BIKI** horiek gabe ez zen egongo, **'eman eta hartu' eta 'erakarri eta bultzatu'** bezalako elkarreraginik; zeina beharrekoa baita milioika esperientzia pertsonalak sortzeko, zeinetatik 'nortasuna' hazi eta bilakatzen den.

Beraz, 'nortasunaren' eta 'ego-bulkadaren' arazoa (zeina, gauza bizidun guztiek eta gizateriak pairatua den), kreazioaren ezinbesteko egitate ezeztazina zen/da. Beste edozein azalpen mito hutsa da.

Ikusi nuen, **'BEKATUA'** gizakien esanetan, giza izaeraren baitan den **Atxikidura-Arbuio** bulkaden elkarreragin zuzenaren ondorioa zela. **Atxikidura-Arbuio bulkadek**, sortutako banako entitate guztiek daramaten moztasun emozional/mentala osatzen dute. Entitate horien artean ditugu bai hegaztiak bai gainerako animaliak. **Bulkada** horiek natura guztian dabilzala ikusten da, baita landareen bizitzan ere.

Atxikidura-Arbuio bulkadek jokabidea bideratzen zuten/dute, kreazioko entitate guztien biziraupen aldera.

Ez zegoen/ez dago ihes egiterik **Atxikidura-Arbuio bulkadetatik**.

Bulkada Biki horiek erosotasun, gozamen, eta 'lurreko' 'zoriontasun' ororen iraupen laburreko iturria ziren/dira - eta baita gaixotasun, miseria, eta pribazio ororen iturria ere munduan.

Hala ere, horiez gain, azpian zen/den **BIZIA** zen/da, guztia gaindituz eta barneratuz,

KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN LEHERKETATIK sortua,

zeina den lur kontzientziaren oinarri eta iturri berbera;

beraz, **'Aita – Ama' Kontzientzia** sortzailea den bezala,
gizakiaren **PENTSATZEA** ere sortzailea da;
zeren 'pentsamendua eta sentimendua', biak baitira,

'Aita – Ama' Kontzientziaren tresna bikien ariketa eta batasuna.

Hortaz, **'Atxikidura-Arbuio' Bulkada** horiek ere guztiz sortzaile egiten dira banakoen nortasunean, zehaztu **-eta ikusgai egiten dituztelako-** 'gauza desiratuen' eta 'gauza arbuiauen' 'kontzientzia formak'.

Hauxe da unibertsoaren oinarritzko bigarren 'sekretua'.

Ikusi nuen **'BEKATUA'** gizakiek egoki asmatutako kontzeptu artifiziale zela, besteei min eragiten zien edozein giza jardura deskribatzeko.

Gainerakoei gauzak 'indarrez kentzeko' eta gainerakoak gogorki baztertzeko berezko joeragatik - bizitzatik nahi zutena lortzearen-, ekidinezina zen gizaki guztiek une batean edo bestean nahigabe edo oinazeren bat eragitea besteei. Besteak zauritzeko giza joera horrek inola ere ez zion irainik eragin **KONTZIENTZIA UNIBERTSALARI** (Jainkoari), judu eta kristau erlijioek baieztatu zuten bezala.

Gizakiak baino ez zuen ulertzen **'bekatu'** hitzaren esanahia, zerengatik eta gizakiari lotutako kreaio guztiak soilik ezagutuko baitzituzten **BANAKOTASUNAREN** oinarritzko **BULKADA** biek - **'Atxikidurak – Arbuioak'**- eragindako mina, gabezia eta miseria; hain zuzen ere, bulkada horiek aktibo daude 'giza nortasunaren' baitan.

Gizakiak bere banakotasuna babesteko atxikita duen bulkadak behartu du gizartearentzat arauak eta legeak egitera. **'Ahalmen Sortzaile Unibertsalak' -MAITASUNAK-** ez zuen zerikusirik batere gizakien murriztapenak, mugaketak, eta lege eta epaiak eratzearekin. Zera hau ere ikusi nuen:

Ahalmen Sortzailea Aita-Ama-BIZIA etengabeko jarioan zebilela unibertso guztian zehar, eta nire gogamenean BERA bizia zela pentsamendu eta sentimenduen bulkada bikiak erabiliz.

Hori dela eta, indar handiko edozein 'pentsatze edo sentitze ez-perfektu' asalatu eta aldatu ahal zuen sortutako gauzen 'KONTZIENTZIA patroia'.

Eta alderantziz:

Nire 'pentsatzeak', 'egoaren' bulkada bikietatik erabat arazturik zegoenean -eta guztiz irekia Ahalmen Sortzaile Aita-Ama ADIMENA/ MAITASUNARI-, berrezartzen zuen

'MAITASUN ADIMENTSU PERFEKTUAREN'

izaera.

Beraz, 'pentsatze ez-perfektuaren' ondorioz, aldeztu aurretik ez-perfektu egin izandako izaera bat, araztua eta egoera oso batera itzulita izan zitekeen, jokabide eta pentsamendu egozentrikoak aldatzean BALDINTZA GABEKO MAITASUNAREN jokabide eta pentsamenduen truke.

Prozesu sortzaile osoaren 'tresna' bat zen nire gogamena, zeinak iturburua

UNIBERTSALEAN baitzeukan.

Orain **banekien** hori horrelaxe zela, **-banekien espiritualki, adimentsuki eta emozionalki-**, eta ohartu nintzen urratsak egin **behar** nituela eta egin nitzakeela nire gogamena lehenago gobernatzen zuten

‘EGOAREN’ BULKADA BIKIAK gainditzeko, **ZERUKO ERREALITATEAK** erabateko askatasuna izan zezan nire gogamenaren eta garunaren bidez.

Horregatik, ene baitan sakonki errotutako giza Egoaren eta nire ‘Aita-Ama Kontzientziaren’ artean borroka bat zegoen, iluminazioaren azkenaldian basamortuan esperimentatuko nituen tentazio garratzetan. Satanasek ez zuen inola ere zerikusirik izan nire kontzientziaren baitan gertaturiko borroka horrekin.

Borroka, honako hauen artean zen:

BANAKOAREN BULKADA BIKIEN (atxikidura – arbuioa) eta

MAITASUNA-BIZIA ADIMENTSUA bezala **BERE BURUA** ezagutzera

eman zitzaidan **ZERUKO ERREALITATEAREN** artean.

Zeina haraindikoa eta hala ere nire barnean baitzen, eta -pixkanaka- gero eta gehiago beretuko baitzuen nire banakotasuna, baldin eta nik meditatzen eta bulkada egoistetatik arazten jarraitzen banuen.

Aurrekoa ezagutza indartsuaren deskribapena da, zeinarekin Nazaretera itzuli nintzen.

Beraz, -otoitz eta meditazio- aldia ere izan zen, amarekin berrindartu arte bizi izan nuen sendatze fisikoaren denbora; zeinetik jaso baintuen inspirazioa eta indarra, **ZERUAREN** edo **ERREALITATE UNIBERTSALAREN IZAERA** kontzienteki eta gogotik **bizitzeko**.

Dakizunez, **ZERUAREN** edo **ERREALITATE UNIBERTSALAREN IZAERA BIZIA da**.

BERA kreazioaren baitan aktibo dabilenean -edo beste modu honetaz ere esan daiteke: kreazioaren ‘banakotasunaren’ barnean-, **BERAK** hazi, elikatu, elikadura hornitu, indarberritu, osatu, babestu, biziraupena bermatu, eta sortutako guztiaren beharrak asetzen ditu, -dena harmonia perfektua, kooperazioa, legea eta ordena dituen sistema baten barruan. Horixe da BIZIAREN ‘izaera’. **BERE** lan guztia kreazioan IZAERA UNIBERTSALAREKIN bat etorritz gauzatzen da, izaki bizidun guztien onura handienaren sustatzea.

Hitz hauek ulertu ahal badituzu, jakingo duzu zergatik itzuli nintzen basamortutik bizipozez beteriko gizon bat bezala, munduaren edertasunaren ulerkuntza berri batekin, uste osoko sentimendu batekin, eta ‘materiaren’ itxura kontrolatzea posible zela JAKINIK. Nirekin batera sentituko duzu nik sentitu nuen gogo bizia, juduei Zeruko Erresuma euren baitan zegoelako berri aintzatsua eskaini ahal izan nielako. Egin behar zuten gauza bakarra zen nire laguntzarekin ‘aurkitu’, eta beren bizitzak betiko aldatuko ziren.

Ezagutza berbera uzten dizut, zeinak -otoitzean erabiliz eta erabat ulertuz- alda baitezake zure bizitzaren ibilbidea. Irakurtzen duzun bitartean zure kontzientzia igoarazia izango da, eta inspirazioa bilatuz gero, etorri egingo zaizu. Irrikatzen dut zuk ulertzea, helburua lortzea, haztea eta eskuratzea. Lasai egon zaitez ene **ARGIAN**; zeren eta irakurri, hausnartu, mediatu eta otoitz egin ahala, nire **KONTZIENTZIA KRISTIKOAK** beretua izanen zara, zeina gero eta argiagoa izanen baita zuretzat **Zeruko Ezagutzan** sakontzen duzun bitartean.

Ene maitasunak, eta handituz doan zure jakintzan dudak fedea inguratzen zaituzte.